

5

**Ikastetxeetan euskararen erabilera areagotzeko asko egin daiteke**

Erramun Osa

9

**Biltzarretan, badakizu...**

Patxi Zubizarreta

21

**Garuna, Kaosa eta Google**  
Juan Carlos CUBEIRO

## Ramon Zallo, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren aholkularia:

**“Kulturaren Euskal Planak aldaketa sakona ekarri du kultura politikara”**



Ramon Zallo Elgezabal (Gernika, 1948) UPV-EHUko katedraduna da eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren aholkularia ikus-entzunezkoei dagozkien gaietan.

Zuzenbide eta Ekonomiako lizentziatua eta Informazio Zientzietako doktorea. Gizarte, kultura eta ekonomia gaietan nahiz komunikazio zientzietan ederki jantzitako aditua dugu, argitaratu dituen zenbait saiakerak erakusten dutenez: *Economía de la comunicación y la Cultura* (1987), *Industrias y políticas culturales en España y País Vasco* (1995) eta *El país de los vascos* (2001). Durango Azokarako argitaratu berri du euskaraz eta gaztelaniaz *Euskal Herria, gaur. Kultura, historia eta gizartea aniztasunaren eta ezagutzaren aroan*. Kulturaren Euskal Planari buruz jardun dugu elkarriketan, hura zertan den jakin guran.

11. or.



## Erreportajea:

**Barraskiloen konpasean  
Slow mugimendua: astiro  
bizitzen ikasteko garaia**

Berandu baino lehen, bizimodu berriaren garaia da. Moteldu abiada. Astiro ibili, hobeto, gizatiarrago. Erlojuaren kontrako matxinada heldu da. *Slow* mugimendua iritsi da. Bizimodu arinaren kontrako jokabide honek egunerokotasunaren zoko guztiak zipritzindu nahi ditu: elikagai, ospitale, ikastetxe, lantoki, herri eta hiriak... Orain dela ehun bat urte nagusitzen hasi zen abiaduraren kultura desagiteko prest da *Slow* mugimendua (*Slow food*, *Slow hiriak*, *Slow bidaiak*, *Slow liburuak*, *Slow sexua*...). Italian 1986an sorturiko ekimenak zenbait adar ditu Euskal Herrian.

13. or.

## Eztabaida:

**Erretiro adina Administrazioan: igo,  
jaitsi ala bere horretan utzi behar da?**

Langile batzuek garaia heldu eta ez dute erretiratu nahi izaten, baina beste hainbatek erretiroa beharrezko adinera iritsi aurretik eskatzen dute, lan gogorraren ostean ondo irabazitako atsedena lortu ahal izateko. Gaur egun Administrazioan erretiroa hartzeko adina 65 urtekoa izan arren, azkenaldian bitarteko hainbat formula ezartzen hasia da: txanda kontratua, lanaldi murrizketa, telelana, bigarren jarduera... Horien guztien inguruko iritzia eskatu diegu Administrazioari zenbait kideri.

19. or.





PAPER  
BIRZIKLATUA

**Zuzendaritza:**  
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

**Koordinatzailea:**  
Xabier Amatria

**Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea:** Itxaropena S.A.

**Ilustrazioak:** Concetta Probanza

**Zenbaki honetako lanlendeak:**  
Begoña Aierdi, Kaxildo Alkorta, Xabier Amatria, Manu Arrasate, Aintzane Arrieta, Juan Carlos Cubeiro, Luis Elizondo, Miel A. Elustondo, Karnele Igartua, Luma, Begoña Minaur, Eneko Oregi, Erramun Osa, Edurne Perez de San Román, Nerea Pikabea, Joseba Terreros, Rosa Mari Urrutia, Agurtzane Villate, Patxi Zubizarreta.

**ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ**  
aldizkarian argiratutako artikulua berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

**ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ**  
aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ADMINISTRAZIOA  
EUSKARAZ

ISSN: 1576-5563. **Legezko Gordailua:** BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea Donostia-San Sebastián 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 00. [www.ivap.euskadi.net](http://www.ivap.euskadi.net)

PERTSONAIA

## Josean Kerejeta, Baskoniako presidentea:

### “Onenen mailara iristeko lan handia egin behar izan da aurretik”



**Bi metro luzeko gizona da Josean Kerejeta. Berrogeita hamar urte beteko ditu aurten. Lazkaotarra jaiotzez, urteak daramatza Gasteizen bizi izaten eta urteak daramatza, halaber, *Tau Saskibaloia* taldea gidatzen. Hala ere, ez du oraingoz saskibaloia uzteko asmorik. Ibilbide luzea egin du saskibaloiko jokalaria gisa *Tau* taldean bertan eta estatuko beste zenbait taldetan. *Real Madrid* taldean jokatzen zegoela, taldeak liga irabazi zuen bi urtez, eta, Europako Kopa irabazi zutenean ere, han zebilen. Bere iraganaz eta geroaz mintzatu gara berarekin.**

**Nola gogoratzen dituzu saskibaloiko hasierak? Nolako oroitzapenak dituzu?**

Ni nahiko berandu hasi nintzen saskibaloian, 15 edo 16 urterekin. Beasaingo talde batean. Eta hamazazpi urterekin Gasteizera joan nintzen. Hasiera gogorra izan zen. Ni bi metro luze nintzen eta oso argala. Entrenamenduak gogorregiak ziren, goiz eta arratsalde; gainera, garai hartan, 1974. urte inguruan, saskibaloia ez zegoen hain profesionalizatuta. Hala ere, pozik ibiltzen ginen.

**Asko aldatu al da geroztik saskibaloiko jokalarien bizimodua?**

Bai. Gure garaiko jokalariek garrantzi gutxiago zuten, diru gutxiago irabazten baitzuten. Eta derrigorrez beste zerbaitetan trebatu beharra zegoen: ikasketaren bat egin... Oraingo jokalariek diru gehiago irabazten dute, baina exijentziak ere gehiago dituzte.

**Zer mailatan dago saskibaloia gaur egun Euskadin?**

Inoizko maila altuenean dago: osasuntsu. Europako Ligan talde onenen artean daude gureak. Hiru talde egotea oso garrantzitsua da. Hori estatu espainiarrean ez da gertatzen. Harro egoteko moduan gaude, baina maila horretara iristeko lan handia egin behar izan da aurretik. Eta, egia esan, ez da batere erraza izango maila horri eustea. Gurea, Gasteiz, hiri txikia da, 200.000 biztanle ingurukoa; beste talde askoren ondoan jokatzeo nahiko zail dugu, guk baino aukera ekonomiko handiagoak baitituzte.

**Diruak bakarrik ez, jokalarien motibazioak ere zerikusia izango du partidak irabazteko orduan, ezta?**

Argi dago jokalaria motibatuta egoteak ere eragina duela taldearen nondik norakoan. Diru-iturri handia duen jokalaria onenak hautatzeko aukera dauka. Horren aurrean gurea bezalako taldeek beste mota bateko

jokalarietan jarri behar izaten dituzte begiak; oraindik bidea egiteko duten jokalaria interesatzen zaizkigu.

**Hamaika aldiz ikusi dugu Gasteizko Andre Mari Zuriaren enparantza jendez gainezka jokalarien lana txalotzeko. Uste duzu *Tau* taldeak saskibaloira zale gehiago erakarri dituela?**

Nik hala uste dut. Berrogeita hamar urte beteko ditu taldeak 2009an; hemeretzi urte egin ditut nik presidente karguan. Talde honen kudeaketa hartu genuenean 1.000 bazkide genituen eta gure aurrekontua 120 milioi pezetakoa zen; gaur egun, berriz, 9.000 abonatura iritsi gara eta 2.100 milioi pezetako aurrekontua dugu. Oraingoz, arrakastaz arrakasta dabilen taldea da, eta, noski, horrek zale asko erakarri du taldera.

**Ezagutuko al dugu bertako jokalariez osatutako saskibaloia talde bat?**

Lehenengo mailan egotea nahi badugu, hori lortzea oso zaila da; hemengo jokalariekin bakarrik osatutako talde batekin ez da posible maila horietara iritea.

**Saskibaloiak uzten dizunean, zertan ematen dituzu aisialdiko orduak?**

Kirolaria izan naizen aldetik, kirola egiten dut, gimnasia eta korrika egitera joaten naiz. Kirola da nire zaletasunetako bat, baina ezin dut saskibaloian jokatu, eskumuturra minduta dudalako.

**Zer asmo edo zer erronka dituzu *Tau* taldearekin?**

Gure asmoak betikoak dira: alde batetik, estatu espainiarrean eta European lehenengo mailan egotea eta, bestetik, maila horri eustea. European lau edo bost onenen artean gaude. European azken bi finaletan izan gara.

**Nerea Pikabea Amundarain**  
Kazetaria

# Agintarien kontuak: erabakiak



**E**kialde Ertaineko herrialde batekoa da hau, aspaldi-aspaldiko kontua. Gure lagun batek kontatzen zuen; ez dut gogoan zein herrialde esaten zuen.

Lurralde hartako herrietako ordezkariak aldian behin batzen omen ziren euren arteko gorabeherak aztertzeko eta guztien on beharrezko erabakiak hartzeko. Oraingo hainbat lekutako batzar nagusiak bezalako bilerak omen ziren. Eguna jarri eta ordezkari guztiak batzen zirenean, ematen zitzaion hasiera batzarrari.

Lehen ekitaldian batzarburuak gaia adierazi eta hitz egiteko aukera ematen omen zien eskatzen zutenei. Han esaten zen guztia ahalik eta zehatzen jasotzen zuten hiru idazkarik. Batzuetan egunean bertan amaitzen zuten; beste batzuetan denbora gehiago behar izaten omen zuten lehen ekitaldi hartarako.

Bigarren ekitaldira, hiru idazkariek ez beste guztiak, mozkor-tuta, kirrikan, joan beharra omen zuten batzarrera. Orduan ere batzarburuak aurreko jardunaldiko gai berak eztabaidagai jar-tzen omen zituen. Giro izango zen han! Pentsatu nolako lanak

izango zituzten hiru idazkariek han entzundakoak, ahal zuten moduan behintzat, idazteko.

Bigarren ekitaldiaren ondoren, pare bat eguneko atsedenal-dia. Eta atsedenaldiaren ondoren, azken ekitaldia.

Azken ekitaldian, idazkariek batzarkide bakoitzari:

–Zuk aurreneko ekitaldian hau esan zenuen halako gaiaz; bigarren ekitaldian, berriz, beste hau.

–Zuk beste gai honetaz zera esan zenuen lehen ekitaldian eta beste zera hau bigarrenean...

Bakoitzak bere onean esanak eta ardoak argituta, edariak lotsagabetuta esanak gogorarazi eta jakinarazten omen zizkieten idazkariek. Isil-isilik egoten omen ziren guztiak, idazkariek beren lana amaitu bitartean. Eta bi bertsoiak entzundakoan, hausnartu biak eta orduan hartzen omen zituz-ten erabakiak.

Hasierako ekitaldira eta azkenekora ernai joaten ziren behin-tzat eta!

**Laguna**

## JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN-BEHINEKO FUNTZIONARIOA

interinez@mindless.com



# Ikastetxeetan euskararen erabilera areagotzeko asko egin daiteke

Duela zenbait urte Jon Sarasuak egindako galdera bati erantzunez, Txepetxek zera zioen: “Nik ez dakit azkenean Euskal Herri euskalduna lortuko dugun, baina, nire burutik hasita, espazioak euskaraz betetzen saiatzen naiz. Edozein kasutan ere, hori delako egin dezakedana, egin nahi dudana eta niretzat zentzua duena”. Aipua, bi kontu azpimarratzeko baliatu nahiko nuke: batetik, ezin espero liteke ikastetxeen eta haien bidezko jardunaren bidez soil-soilik euskara indarberritzea; bestetik, eskolak euskara indarberritzean egin dezakeen ekarpena mugatua izanagatik erabakigarria da, baldin eta, haren jarduna, besteak beste, indarberritze hori ahalbidetzeko noranzkoan jartzen bada, hiztunak nahiz erabilera eremuak irabaziz.

## Gizarte eragileen zeregina

Euskara normalizatzeko, gizartearen zerbitzura dagoen euskal eskolan bestelako gizarte eragileek sarriago hartu behar dute esku. Inguruabar horretan, gure gizartean euskararen normalizazioa lortzeko itxaropena eskolaren esku utzi da, baina gehiegizko esperantza hori galdera ikur handi batez markatzea komeni da. Munduan ez dago gutxiengoa den hiztun elkarte bat ere –gizartearen gehiengoa izan arren– eskolaren bidez bakarrik gutxiagotutako hizkuntza bat indarberritzea lortu duenik; hortaz, eskolak xede hori lordezan, esku-esku, askotariko eragileak behar ditu aldamean. Beraz, nire ustetan, euskal gizarteak galdera bati erantzun beharko lioke ahalik eta azkarren: benetan nahi al dugu euskararen normalizazioa iturakerietatik haratago? Zergatik? Zertarako? Eta baiezkoa bada gure erantzuna, zein da lagun hurkoaren bizkar –norberarena ere den erantzukizuna utzi gabe– bakoitzak dezakeen horretatik egiteko prest dagoen ahalegina?

## Esparru giltzarriak

Eskolari gagozkiolarik, zein da egin dezakeen ekarpena? Hasteko, garrantzi handikoa da eskola eremuan baliatuko ditugun hizkuntzak eta hauek erabiltzeko esparruak identifikatzea; horrek, besteak beste, balio izango digu euskara normalizatzeko prozesuan denok egitekoak ditugula eta denon ahalegin horiek metatuz aurrera egin dezakegula bistaratzeko. Horiek horrela, hizkuntzei dagokienez, bi eremu nagusi antzeman ditzakegu (ikus 1. irudia): batetik, esparru pedagogikoa, ikasgela barruko eremu formala eta hortik kanpoko eremu ez-formala kontuan hartuko dituen; bestetik, eremu instituzionala, hots, ikastetxea kudeatzeko eta antolatzeko lanarekin, harremanekin eta abarrekin zerikusia daukan esparrua.

## Esparru formala eta eleaniztasuna

Esparru formalari dagokionez, ele biko ikastereduen etorkizunari buruzko eztabaida puri-purian dagoelarik, lau hizkuntzatan egituratutako hezkuntza sistemara hurreratzeko urratsak egin beharko genituzke. Gaztelaniarekiko eta euskararekiko helburu berdinkideak zehaztuz eta, ingeles zein frantsesaren kasuan, helburu are apalagoak finkatuz. Euskaldun eleaniztunak sortzea litzateke azken helburua. Bideabar, bertoko hizkuntza ahulari, euskarari, arrazoizko itxarobidea eskainiz eleaniztasun planteamendu horren bidez. Izan ere, beste hainbat esparrutan galdurik edo bereganatu gabe daukan bizi-esparrua, nagusitasunezko arnas gunea, eskaini behar dio eskolak euskarari, oro har. Horretarako, ezinbestean lortu behar dugu eskolaren ardatz nagusietako bat euskara izatea.

## 1. irudia

EREMU PEDAGOGIKOA			EREMU INSTITUZIONALA		
KURRIKULARRA		EZ KURRIKULARRA	IKASTETXEAREN ANTOLAKETA	HARREMANAK	
KUDEAKETA PEDAGOGIKOA	INTERAKZIO DIDAKTIKOA			FAMILIA	GIZARTEA OROKORREAN
<p><b>Proiektu kurrikularra:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Hizkuntza arloko curriculum integratua.</li> <li>Beste arloetako curriculumak: hizkuntzen trataera instrumentala, globalizazioa, etab.</li> </ol> <p><b>Egitasmo osagarriak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Euskara eta euskal kultura.</li> <li>Zehar lerroak.</li> </ol> <p><b>Irakasleen prestakuntza plana:</b> hizkuntza hobekuntza, metodologia, etab.</p>	<p><b>Harremanak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Arlo bakoitzeko harreman hizkuntza.</li> <li>Irakaslearen hizkuntza erredua eta hizkuntzekiko jarrera.</li> <li>Irakasle/ikasle arteko hizkuntza erabilera eta kalitatea.</li> </ul> <p><b>Baliabideak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Gelaren girotea: hormirudiak, kartelak, etab.</li> <li>Informazio iturrien eta bestelako baliabideen hizkuntza.</li> </ol>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Jolasaldiak.</li> <li>Jantokia, garraioa, zerbitzuak, etab.</li> <li>Eskolaz kanpoko ekintzak.</li> <li>Irakasleen arteko hizkuntza erabilera eta kalitatea.</li> <li>Gainontzeko giza baliabideen hizkuntza.</li> <li>Ikasleen arteko hizkuntza erabilera eta kalitatea.</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>Gobernu eta funtzionamendu organoak.</li> <li>Ekonomia, administrazioa eta dokumentazioa.</li> <li>Langileen hizkuntza eskakizunak.</li> <li>Espazioen banaketa eta tratarea.</li> <li>Ikastetxeko errotulazio eta informazio guneak (errotulazioa, kartelak, iragarpen taulak, etab.).</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>Ikastetxearen eta gurasoen arteko harremanak, irakaslea, ikastetxea, etab.</li> <li>Familia barruko hizkuntza erabilera eta kalitatea.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>Beste ikastetxeekiko harremanak.</li> <li>Herriko beste talde eta erakundeekiko harremanak.</li> <li>Administrazioarekiko harremanak.</li> <li>Bestelako harremanak.</li> </ol>

## Komunikazio gaitasuna

Halaber, hizkuntzak irakasteko eta ebaluatzeko Europako Erreferentzia Markoan esaten direnak gogoan, hizkuntza bakoitza bakarka planteatu ordez, osotasunean planteatzea behar-beharrezkoa da, bai eta curriculum bateratua eraikitzea nahiz hezkuntza erkidegoko kideek lankidetzan jardutea ere, helburuak-eta partekatuz. Horren xedea zera da: lau hizkuntzak aintzat hartuta, ikasleek komunikazio gaitasuna garatu dezaten ahalbidetzea. Era berean, bestelakoak bideratu behar dira, hala nola maisu-maistren oinarrizko eta etengabeko prestakuntza parametro berrietara ekartzea, irizpide berriak kontuan hartuko dituzten materialak ekoiztea, hezkuntza administrazioak duen zeregina berrikustea... Gauzak horrela, nire uste apalean, ikastetxeei euren bidea jorrazteko autonomia aitortu beharko litzaieke, bizi duten errealitate-tik abiatuz eta lortzen dituzten emaitzen jarraipena egiteko ebaluazio sistema eragingarria alboan dutela.

Hezkuntza sisteman egin beharreko sakoneko zenbait aldaketa aipatzeaz batera, komeni da azpimarratzea irakasleek gela barruko jarduna hizkuntzen erabilera areagotzearekin uztartu beharko luketela. Hizkuntzak, hezkuntzan gauzak egiteko baliatzen diren neurrian, eskuratzen direnez gero, ez dago ezagutzaren eta erabileraren arteko sasoi bateko bereizketarik egiterik. Inguruabar horretan, gure ikasleak ikasprozesuan aurrera egin ahala, gero eta aukera urriagoak izaten dituzte euskaraz jarduteko; egoera horretan, nola eman dezakegu erabilerarako jautzia? Ezinezkoa da. Ikuspegi honetan sakonduz, unibertsitatera sartu aurreko probak moldatzeak ere onurak ekar ditzake. Izan ere, besteak beste, parametro batzuen araberakoa izateak ahalbidetuko du katean, zurrunagoak eta eguneratzen zailagoak diren tarteko mailetan, (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, esate baterako) metodologia orientabideak, eba-

luazio irizpideak... eguneratzea, betiere ikasleen komunikazio gaitasunari nabarmen eraginez.

## Esparru ez-formala eta euskaraz egiteko aukerak

Baina, esparru formalean hizkuntzak, oro har, eta euskara, bereziki, erabiltzeko aukerak ugaltzeko lanabesak ditugun neurrian –baliatu nahi ditugun, besterik da–, komeni da esparru ez-formalean ahalik eta aukera gehien eskaintzea, gazteek euskara gustuko dituzten gauzekin lot dezaten, haien arteko eragina indartuz, komunikazio gaitasuna sendotuz, hizkuntzarekiko atxikimendua landuz eta abar. Horretarako, helburu zehatzak eta mailakatuak izango dituzten plangintza sistematikoak –ez ekintza bakartuak– egituratzea erabakigarria da, aldiari-aldiari lortzen diren emaitzei jarraitzeko eta ebaluazioa egiteko (ikus 2. irudia).

## Lan irmo, sendo eta adostua

Euskararen erabilerari eragitea eta aurrera egitea lan nekoso da; are gehiago kontuan hartzen badugu gizartearen erabateko gehiengoak gaztelaniaz eroso eta inolako trabarik gabe jarduten duela, gure hizkuntzarekiko hil edo biziko erronka hein handi batean belaunaldi berrien esku utzita daukagula eta gureak diren egitekoak haien bizkar ez ezik eskolaren bizkar ere utzi ditugula. Haatik, lan irmo eta sendoa behar-beharrezkoa dugu, askotariko eragileekin lankidetzan adostua eta denboran aurrera eramateko modukoa.

Maratoi luze horretan denok gara beharrezkoak, denok ditugu geure-geureak diren egitekoak. Batzuek maratoiaren lehenbiziko ehun metroak korrituta amore emango dute, apika, baina badira maratoiaren amaierara iristeko ahaleginak egingo dituztenak, talde lanean, helburuak partekatuz jardungo dutenak: horietatik ezinbestekoak. Bakoitzak dezakeen horretatik ahalegindu ez delako ez dadila gure hizkuntza desagertu; hala biz!

## 2. irudia

	EREMUAK	ALDERDIAK
EREMU PEDAGOGIKOA	KURRIKULARRA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikasgelan ikasleen motibazio eta euskararen erabilera sustatzeko, areagotzeko estrategiak bultzatu eta horretarako ekintzak bideratu.</li> <li>Hezkuntza erkidegoko pertsonen arteko hizkuntzaren erabilera; zein erregistro mota eta zertarako.</li> <li><i>Neur Kareletik</i> (Ulibarri), azterketa tresna.</li> </ul>
	EUSKAL CURRICULUMA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zehar lerroaren tratara eman (bertsolaritza, kantagintza, euskal kulturgintza ezagutzera eman, etab.).</li> <li>Honakoak gela barruko zein gelaz kanpoko jardueretan isla eduki behar du.</li> </ul>
EREMU PEDAGOGIKOA	EZ-KURRIKULARRA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eremu hauetan euskararen erabilera sustatzeko estrategiak bultzatu era horretarako ekintzak bideratu. Antolaketa plana (interbentzio plana, koordinazioa...).</li> <li>Ekintzen artean, kirolarekin-eta zerikusia daukaten jarduerak ere sartu.</li> <li>Eskolan eta ohiko klase orduetaz kanpo espazioak irabazteko jarduerak aurreikusi.</li> <li>Halaber, espazio hauetan esku hartzen duten pertsonen prestakuntza ahalbidetzen duten egitasmoak sartu.</li> <li>Hezkuntza erkidegoko pertsonen arteko hizkuntzaren erabilera; zein erregistro mota eta zertarako.</li> <li>Euskararen erabilera eremu ez-formaletan azterketa sistematikoak egin (SEI, etab.).</li> </ul>
	IKASTOLAKO SARRERA-IRTEERAK IKASTOLAK ANTOLATZEN DITUEN IRTEERAK JAIK ETA OSPAKIZUNAK ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK	
EREMU INSTITUZIONALA	IKASTOLAKO ANTOLAKETA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastolaren hizkuntza politika zehaztu (pertsonak –begiraleak, irakasleak, bestelako pertsonak– eta zerbitzuak kontratatuzko hizkuntza irizpideak, hizkuntza paisaia –dokumentazioa, errotilazioa...–).</li> <li>Irakasleen eta ez-irakasleen hizkuntza maila jasotzeko jarduerak, motibazioa/inplikazioa lantzeko saioak... txertatu.</li> <li><i>Neur Kareletik</i> (Ulibarri), azterketa tresna (aldian aldikoa).</li> </ul>
	FAMILIA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastolaren eta gurasoen arteko harremanen ezaugarriak definitu. Hizkuntza politika (ahoz edota idatziz burutzen diren harremanetan) finkatu.</li> <li>Familia tipologiak ezagutzeko datu bilketa (<i>Ikasdat</i> baliatuz, etab.). Horren arabera, jarduerak antolatu.</li> <li>Familia barruko hizkuntzaren erabilera eta kalitatea (familia tipologiaren arabera) estrategiak sustatu.</li> </ul>
	GIZARTEA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastolako hizkuntza irizpideak kontuan, Hezkuntza, udal, ikastetxe zein bestelako eragileekin hizkuntza harremanen ezaugarriak definitu.</li> </ul>

## Erramun Osa

### Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko hizkuntza arduraduna

# Kontsumo erreklamazioak

**Gehiegi protestatu ohi dugu; erreklamatu, ordea, gutxiegi. Erreklamazioa, gure eskubidea ez ezik, desadostasuna adierazteko dugun baliabidea ere bada. Edozein kasutan, bidaltzaileen aringarri eta hartzaileen buruhausgarri, azken urteotan nahiko ugaltu da erreklamazioak idatziz eta dotore igortzeko ohitura, beharbada, kontsumoa handitu den heinean, gero eta zorrotzago edo, batek jakin, asegaitzago jokatzen baitugu.**

**Baina, guztiok, nahitaez, kontsumoaren gurgil zoroan gaude, eta, zerbaitek betetzen ez gaituenean, kexak idazteko jokabide lasaitzaileari ekiten diogu. Beraz, artikulua honetan eskaintzen dizugu Administrazioari kontsumo erreklamazioen berri emateko idazki eredu bat. Horretarako, bada, oinarri hartu ditugu *IVAPeko Estilo Liburuan* idazkiak atontzeko finkaturiko irizpideak.**

## Definizioa

Kontsumitzaileak geure borondatez erosten ditugu produktuak nahiz zerbitzuak. Ordaindu dugun diruaren truk jasotakoarekin konforme ez gaudenean, gure kexa adierazteko eskubidea dugu.

Erreklamazioa horretarako erabiltzen da, hain zuzen ere: administrazio eskudunari ondasunen kontsumoarekin edo zerbitzuen erabilerarekin zerikusia duten gertaeren berri emateko. Erreklamatu duen kontsumitzaile edo erabiltzaileak arazoa konpontzea edo kaltea ordaintzeko eska dezake.

Kexa bat administrazio bidetik aurkezteko metodorik erraz eta gomendagarriena erreklamazio orria betetzea da. EAEko Administrazioak kontsumitzaileen erreklamazioak bideratu eta konpondu egiten ditu. Horrela, Administrazioa kontsumitzaileen arazoak konpontzen saiatuko da akordio edo arbitraje sistemaren bidez eta, arau hauste bat gertatzen bada, erreklamatuak alderdiari dagokion zigorra jarri ahal izango dio.

Agiri mota hau Administrazioak sortutako inprimakia da eta kontsumitzaile edo erabiltzaileei aukera ematen die beren erreklamazioa eragin duen arazoia adierazteko.

Kontsumo erreklamazioak desadostasuna sortu den lekuan bertan edo bezero eta erabiltzaileentzako informazio gunean bete behar dira. Eta bete ondoren, bi aldeek sinatu behar dute. EAEn ondasunak merkaturatu edo zerbitzuak eskaintzen dituzten guztiak izan behar dituzte erreklamazio orriak, bezero edo erabiltzaileen eskueran.

## Idazteko irizpideak

Erreklamazioan ezinbestean eman beharreko informazioa honako hau da:


1. Erreklamazioa non eta noiz izan den.
2. Erreklamatuaren datuak.
3. Erreklamazioaren arrazoiak –gertaera– eta zer lortu nahi dugun –xedea–.
4. Erreklamatuaren datuak.
5. Erreklamatuaren arazoibideak.
6. Gainerako agirietan bezala, honako hau ere sinatu beharra dago.
7. Azkenik, noiz aurkeztu dugun agiria adieraziko dugu.

Horrekin batera, frogatzat balio dezaketen frogagiri eta dokumentu guztiak eranstea komeni da, bereziki ordainagiria, prezioei buruzko erreklamazioa denean. Horretarako, gure eredu honetan berariaz prestatutako eremua ikusiko duzue; bertan, argigarriak izan daitezkeen agiri guztiak aipa daitezke (fakturak, sarrerak, egiaztagirak...), kontsumo erreklamazioak eraginkortasun handiago izateko.

Kontsumoaren arloan eskumena duenak erreklamazioa jaso eta 15 eguneko epean hartu izana adierazi eta erreklamatuak establezimendura eraman beharko du. Horrek hamar eguneko epea izango du alegazioak eta nahi dituen frogak aurkezteko.

Nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar geuk ere erreklamazioa egin ahal izateko epe jakin bat izango dugula eta epe horren barruan egin behar dugula derrigor. Ez dago erreklamatuak epe orokorra ematerik, zerbitzu edo produktu bakoitzak bere epea baitu. Garantian edo aseguru polizan agertu behar du zein diren gure eskubideak.

Hona hemen, bada, kontsumo arloko gaitan Administrazioari bidaltzeko eredu gisa erabil daitezkeen erreklamazio orria. Gogoan izan norberaren datuak ez ezik, erreklamazioa jaso duenarenak ere behar-beharrezkoak direla, Administrazioak auzian esku hartzeko aukera izan dezan.



# Erreklamazio orria

## Hoja de reclamaciones

Erreklamatzailleak Administrazioari bidaltzeko alea  
El reclamante entregará este ejemplar a la Administración

### NON ETA NOIZ GERTATU DEN

#### LUGAR Y FECHA DEL HECHO

Udalerría Municipio	Probintzia Provincia	Data Fecha
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

### ERREKLAMATZAILEAREN DATUAK

#### DATOS DEL RECLAMANTE

Izen-abizenak Nombre y apellidos	NAN DNI	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	
Helbidea Domicilio	Telefona Teléfono	Posta elektronikoa Correo electrónico
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

### ERREKLAMAZIOAREN ARRAZOIAK ETA XEDEA

#### HECHOS RECLAMADOS Y PRETENSIÓN

### ERREKLAMATUAREN DATUAK

#### DATOS DEL RECLAMADO

Izen-abizenak Nombre y apellidos	NAN edo IFZ DNI o NIF	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	
Helbidea Domicilio	Telefona Teléfono	Posta elektronikoa Correo electrónico
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

### ERREKLAMATUAREN ARRAZOIBIDEAK

#### ALEGACIONES DEL RECLAMADO

### ERANTSITAKO AGIRIAK

#### DOCUMENTOS QUE SE ADJUNTAN

### SINADURAK

#### FIRMAS

Data  
Fecha

Erreklamatzaillea  
El reclamante

Erreklamaturia  
El reclamado

Edurne Pérez de San Román  
Euskara teknikaria





## Biltzarretan, badakizu...

QueestimandolademandainterpuetaporX,representada porelprocuradordelostribunalesYcontraZ,ensituaciónde rebeldíaprocesal,declaroladisoluciónpordivorciodelmatrimoniocelbradoporloslitigantesauzi iheseandenZre naurka,Ykepaitegietakoprokuradoreakordezkatu rik,Xkaurkeztutakodemandaonartzendudanezgero,auzilarie kosatutakoezkontza,dibortzioadela-eta,desegintzatjotzendut... Deseroso nengoen, testu hura itzuli beharrak egonezina zekarkidan. Ezagutzen ez nuen X etortzen zitzaidan behin eta berriro gogora, zer gertatuko ote zitzaion demanda hura aurkezteko; eta Z, auzi ihesean zebilena, non ote zegoen, nik ezagutzen dudana urlia bezala, bere burua kanpin bateko karabanan abandonaturik? Eta neure baitan *rebeldía* hitza entzuten nuen behin eta berriro, eta *ihesa*. “Etorriko al zara kafe bat hartzera?”, entzun nuen gero, Mirenen ahotik, “kafe bat har dezakegu, eta zigarro bat erre. Gainera, berri bat daukat zuretzat”. Eta ihes egin nuen.

Contodoslosefectoslegalesinherentesaestadeclaracióny losestablecidosenlasentenciade22demarzode2002dictada enautosdeSPM208/02,porlaqueseaprobóelconveniodela separaciónde12demarzode2002horrek dakartzanlegezko ondorioekineta208/02SPMkoautoetanemandako2002ko martxoaren22koepaienezarritakoakere; izanere,epaihorrenbidez onartueginbaitzen2002komartxoaren12kobana ketahitzarmena... Burua eta gogoa pantailatik urrun ditut, hain zuzen ere Mirenek egin zidan proposamenaren ondorioetan. “Hizkuntza gutxituei buruzko biltzarra egingo da. Bartzelonan. Bihar. Joakinek ez dauka joaterik, eta nahi baduzu, elkarrekin joan gaitezke...”. Ahotik ke bafada bat jaurtiz esan zidan, begiak begietan. Ezkondua da Miren, haur baten ama, baina iheska zebilen hura ere. Igarri-igarrian zegoen. Nik ere ke bafada bat bota nuen, baina begiak zeruari josi nizkion, hegazkin baten isatsari hain zuzen ere: Bartzelona, biltzarra... “Ados”, esan nion bat-batean, eta Mirenen ahoan ohiko irri firfira seduzitzailea agertu zen. “Badakizu, biltzarretan...”

Unavezfirmeeestasentencia,remítasetestimoniodelamisma alencargadodelregistrocorrespondiente,paralaanotación delasentenciadedivorcioalmargendelainscripcióndel matrimonio.epaihaurmoeginostean,bidalbekiohorrenziur tagiriaerregistrozibilekoarduradunari,ezkontzainskripzioarenorribazterreandibortzioepaiarenoharraidatziahalizateko. Loiuko aireportura taxi berean joan ginen, hegazkinean ere elkarren alboan eseri ginen eta ezin dut ukatu artega nindoala: biltzarrek ez ninduen bereziki kilikatzen, baina Mirenen hitzak gogoan iltzaturik nituen: “Biltzarretan, badakizu...”. Dena dela, gure arteko solasaldiak aski formalak izan ziren, aski hutsalak; hitzaldiak eta mintegiak, ostera, uste baino interesgarriagoak gertatu zitzaizkidan, eta batik bat Sebastià Serranoren sarrera hitzaldia dut gogoan. “Begirada bilatzaileak gara. Hitzetatik harago, ukimena garatu beharra daukagu”. Eta gaua. Bazkaltzeko Miren Kopenhageko gizon baten alboan eseri zen eta horrek harritu egin ninduen. Bai bazkarian zehar bai hitzaldi aretoan gure begiradak behin baino gehiagotan gurutzatu ziren, baina afarian ere elkarrengandik urrun eseri ginen. Miren eguerdiko gizon berarekin eseri zen eta ni Gironako itzultzaile batzuen erdian egokitu nintzen. Eta gero, ustekabean, Miren desagertu egin zen, eta ni oso deseroso sentitu nintzen. Taldetik ahalik eta diskretuen bereizi, eta hoteleko tabernara jo nuen, whiskia whiskiari egon nintzen, Mirenen zain akaso.

Así porestami Sentencia, contra la que caberecurso de apelación interponerse en el plazo de cincodías anteestemismo Juzgado, lo pronuncio, mandoyfirmo epai hau eman, agindu eta sinatzen dut. epaiaren aurka apelazio errekurtsioa aurkezgai teke epai jakinarazion dokobosteguneko epian, epaitegi honetan. Besoak barran antxumaturik neuzkala, halako batean alboan zegoen emakume gazte bati erreparatu nion. Dantzatzer a gonbidatu nuen. Artean Miren itzultzeko irrikaz nengoen, emakume haren besoetan ikus nintzan. Orduz geroztik, baina, Miren ahantzi eta Nadiak bereganatu ninduen. Errumaniarra omen zen, Kataluniara ezkondu, banandu, eta orain prostituzioan zebilena. Nik ere neure burua prostituitu egiten nuela aitortu nion, ez nintzela zoriontsu, noiz eta lan finkoa lortu nuelarik. Topa eta topa ibili ginen, ahopekoetan, harik eta egunsentiak sofa batean esnatu gintuen arte. Egun argitan elkar agurtzen hasi ginelarik, ohartu ginen ez genuela elkar ulertzen, Nadiak errumanieraz baino ez zekiela, eta gaztelaniazko eta ingelesezko hitz batzuk doi-doi. Eta, hala ere, ziur nago gauean zehar elkarri den-dena ulertu geniola...

El textocompletodelaresoluciónquesenotifica estáadisposición delinteresa dononotezaudeen la secretaría de estetri bunal jakinaraztendene bazpenaren zee bazpenetazee bazpenodotestu osoa auzitegi honetakoidazkaritzandago eta ninon nagoni interesdunaren eskura. Bueltako hegazkinean ere gure arteko solasaldiak aski formalak izan ziren, aski hutsalak, baina gogoan dut Mirenek “Zer moduz?” galdegin zidalarik, nik honela erantzun niola: “Biltzarretan, badakizu...”. Vitoria-Gasteiz, a4 dediciembre de 2006. Vitoria-Gasteiz, 2006ko azaroaren 4a.

**Patxi Zubizarreta**  
Idazlea



### Mundua on-line

## Googleren eskaintza berria: testu dokumentuak eta kalkulu orriak on-line

Batzuen ustetan, etorkizunean programa informatiko guztiak sarean izango dira, ez ordenagailuetan ezarrita, eta erabili ahala ordainduko ditugu.

Googlek etorkizun horretara hurbildu gaitu neurri batean: gehien erabiltzen ditugun programak (testu prozesadorea eta kalkulu orria) doan jarri ditu bere web gunean, *gmail* kontu bat dutenei zuzenduta.

Googlek eskaintzen dituen aplikazio hauei esker, ez da ezer instalatu behar norberaren ordenagailuan; aplikazioak Interneten daude eta horiek erabiltzeko web nabigatzailea besterik ez da behar (Mozilla Firefox, Internet Explorer...).

Google Docs & Spreadsheets izeneko lanabes honek dokumentuak idazteko testu prozesadorea (Docs) eta kalkulu orriak kudeatzeko aplikazioa (Spreadsheets) dauzka. Erabiltzen hasteko, nahikoa da Googlen erregistratuta egotea.

Honatx aplikazio honen ezaugarri nagusiak:

- Erabiltzaileak ez du bere ordenagailua eskura izan beharrik. Interneteko konexioa izanez gero, nahikoa da web gunean sartzea lan egiteko.
- Partekatzeko erraztasuna: Interneten egoteak erraztu egiten du agiriak partekatzeo aukera; horrelaxe saihesten da, kasurako, txosten bat osatu behar duten pertsonen posta elektronikoz dokumentu zatiak bidaltzen jardutea.
- Ezaugarriak etengabe eguneratzea: ez dago norberaren ordenagailuko aplikazioa eguneratzen ibili beharrik; Google bera arduratzen da aplikazioak berritzeaz.

Eskaintza hauetaz baliatzeko, jo helbide honetara: <http://docs.google.com>

**Luis Elizondo**  
L-Elizondo@euskadi.net



## Lehendakariak euskararen erabilera areagotzeko eskatu du

Juan Jose Ibarretxe lehendakariak euskararen erabilera egitasmoan buru-belarri esku hartzeko eskatu die Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomo guztietako arduradun eta langileei. Urriaren 11n Eusko Jaurlaritzako Gasteizko egoitza nagusian egin zen ekitaldia. Lehendakariak azpimarratu duenez, lan handia egin da euskara normalizatzeko, baina ezagutzaren eta erabileraren arteko zubia eraikitzeko dago oraindik ere. Lehendakariarekin batera, ekitaldi honetara bertaratu ziren: Miren Azkarate, Kultura sailburua; Patxi Baztarrika, Hizkuntza Politikarako sailburuordea; eta Zelai Nikolas, *Tiraka* (langile euskaldunen elkarte) taldeko kidea.



## ESLA Nazioarteko Biltzarra

*Hizkuntzen irakaskuntza, hizkuntzaren erabilera eta ezagutza eredu.* Horixe izango da Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak (UNED) Madrilen duen egoitza nagusian izango den XXIV. Nazioarteko Biltzar honen gai nagusia. Aurten, 2006ko martxoaren 30etik apirilaren 1era bitartean aukera izango dugu biltzarreko hamar ardatz hauen inguruan eztabaidatzeko: hizkuntzak eskuratzea eta ikastea; hizkuntzak irakastea eta curriculum diseinatzea; xede berezietarako hizkuntzak; hizkuntzaren psikologia, umeen hizkuntza eta psikolinguistika; soziolinguistika; pragmatika; diskurtsoaren azterketa; corpusaren hizkuntzalaritza, hizkuntzalaritza konputazionala eta hizkuntza ingeniariatza; lexikologia eta lexicografia; eta itzulpenegintza eta interpretazioa.

Izena ematea: 2006ko otsailaren 20ra arte, 120 €; egun horretatik aurrera, 130 €. Ikasleek eta AESLako bazkideek deskontua izango dute.

Biltzarrari buruzko argibide gehiago: [www.uned.es/aesla2006](http://www.uned.es/aesla2006)

Helbide elektronikoa: [aesla2006@flog.uned.es](mailto:aesla2006@flog.uned.es)

Telefonoak: 91 398 6842 / 91 398 8467



## Osatz egitasmoa

HABEren eta Osakidetzaren ekimenari esker, osasun arloan ari diren langileek euskara ikasteko baliabide berriak izango dituzte eskura. Sortutako ikasmaterialearen helburu nagusia da behargin hauek euskaraz komunikatzeko gai izatea, eta horretarako hiru bide eskaintzen dira: *Osatz* izeneko aldizkaria, irratsaioak eta web gunea.

Aldizkariak profesionali egindako elkarrizketak, osasunaren inguruko gaien lotutako artikulua eta mintzaldi moldeak ez ezik, honako hauek ere eskaintzen ditu: hiztegia, hizkuntza lantzeko ariketak eta *Osatz Orokorra* eta *Osatz Pediatría* ikasmaterialean oinarritutako autoikaskuntza gidak. Hilero ale bana argitaratuko da. Irratsaioetan, berriz, entzuleak aukera izango du esparru jakin honetako hizkuntza eredu hurbiltzeko. Eta web gunean aldizkariako artikulua, ariketak, irratsaioak, transkripzioak, berriak, azterketa ereduak, zalantza argitzeko foroa... izango ditu erabiltzaileak. Osasun arloa euskalduntzeko ezinbesteko aurrerapausoa.



## Eusko Jaurlaritzako profesionalen CATCert saria eskuratu dute

Kataluniako Ziurtapen eta Sinadura Digitalerako Agentziak (Agència Catalana de Certificació) iazko urrian antolatutako Sinadura Elektronikoiari buruzko Jardunaldietan CATCert saria eskuratu zuten Eusko Jaurlaritzako profesionalak, sinadura elektronikoa erabili eta ezartzeko egindako lanagatik. Sari honek bultzada handia ematen dio *Izenperi*, Eusko Jaurlaritzako eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiek sortutako Ziurtapen eta Sinadura Digitalerako Euskal Erakundeari, hain zuzen ere.

## Ramon Zallo, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren aholkularia



### “Kulturaren Euskal Planak aldaketa sakona ekarri du kultura politikara”

**Isil antzean igaro dira Kulturaren Euskal Planaren lehenengo bi urteak. Hedabideetan ez dugu haren berririk izan. Hori, ordea, ez da gertatu plana paper bustia delako, baizik eta kultura sektorea osatzen duten eragileek lanean buru-belarri jardun dutelako. Zenbait hedabidek kexa zabaltzeko baliatu dute beren tresneria. Planaren arduradunak ere konaturatu dira lan egin ez ezik, berri eman ere egin behar dela. Eta horri ekin diote: komunikazioa, aldizkari digitala, materialen argitalpena. Horien inguruan mintzatu zaigu Ramon Zallo, Kultura Sailaren aholkulari baita kulturaren euskal eremua egituratu nahi duen eginkizun garrantzitsu honetan.**

**Badira bi urte Kulturaren Euskal Plana (KEP) abiarazi zenutenetik. Harrera ona izan zuela esango nuke, erakundeekiko errezeloak gorabehera. Bi urte igaro eta, oraindik orain, Miren Azkarate Kultura sailburuak esana ekarri nahi dizut hona, hau da, barrura begira lan handia egin dela, baina kanpora begira gutxi. Ez duzuela horren albisterik plazaratu, esan nahi zuen.**

Buru-belarri jardun dugu lanean, KEPek zehazten zituen lanerroak lantzen, eta alde batera utzi ditugu jendaurreko harremanak. Hori dela eta, hedabideren batzuek abisu eman digute, zertan ginen galdezka. Baina, kontua da KEPek aurreikusten zituen jardunbideen %60 baino gehiago bete dugula. Abiadan goaz, eta orain are trinkoago saiatu nahi dugu, oraindik burutu ez den lana egiteko. Komunikazioa dela eta ez dela, jendaurrean albisterik zabaldu ez arren, esan behar da sektorea jakinaren gainean egon dela beti, zuzeneko informazioa izan duela, gurekin batera ibili delako lanean.

#### **Sektoreak badaki, beraz.**

Bai. Izan ere, kultura politika elkarrekin kudeatzeari ekin diogu. Horixe izan da aldaketarik handiena. Lan taldeetan esaten dena behin ere ez da alferrik galtzen. Are gehiago, KEP bera sektorearen barruko hogeitau lan taldeek egindako proposamenen ondorioa da. Planak horrexegatik du sinesgarritasuna, eragileena delako, ez Administrazioaren araberrakoa. Hasieratik, prozesuaren plangintza demokratizatzeak sinesgarritasuna eman zion KEPi. Harrezkero egin dugun lanak eta bete ditugun asmoek konfiantza eta nola-halako baikortasuna eman diote sektoreari.

**Komunikazioa dela eta, aldizkari digital bat egiteko asmoa duzue, oker ez banago. Eta planaren inguruan erabili izan duzen material guztia ere web orrian jarriko duzue...**

Aldizkaria dela eta, digitala izango da, bai, eta hiru hilik behin kaleratuko da; hori Kulturaren Euskal Behatokiaren lana da. Martxan da prozesua eta, urtea amaitu baino lehen, sarean jartzeko konpromisoa hartua du. Materialei dagokienez, jadanik sarean daude, Kultura Sailaren web gunean ([www.kultura.ejgv.euskadi.net](http://www.kultura.ejgv.euskadi.net)). Adibidez, KEP egin aurretik landu ziren materialak sarean daude eta 2003ko azaroan Kultur Politikoei buruzko Nazioarteko I. Biltzarrean landutakoak ere liburu formatuan argitaratuko dira urtea amaitu aurretik. Nik esatera, oso material aberatsa da, eta KEP gauzatzeko kontrapuntu baliagarria, txosten zehatzak direlako.

**Planak egitea ona da, baina horiek gauzatu egin behar dira. Esan duzu %60 baino gehiago bete duzuela.**


Bai, aurreikusitako jardueren ehuneko hori guztiz burututa dago edo neurri handi batean gauzatu da, behinik behin. Gainerakoak egiteko daude. Batzuk, ezin izango dira aurrera atera, formulatuta dauden moduagatik beragatik. Esan nahi baita, horietariko batzuk saiatu beharreko proposamenak dira, froga egin beharrekoak, ez besterik. Adibidez, arrisku kapitaleko elkarteei dagokiena, sektoreak egindako proposamena da. Ahaleginak eta kontsultak egin ditugu, baina ez da bideragarria. Ondorioz, Ogasun Sailarekin hitz egiten ari gara, kultura jarduerak aurrera eramateko bestelako finantzabideak topatu guran.

## Kulturaren Euskal Kontseilua ere berritu duzue...

Sailburuak partaide berriak izendatu ditu. Azaroaren 22an kontseiluaren bilkura egin zen. Bilkura hartan, lehengo kontseiluki-deak eta partaide berriak bildu ziren ordura arte egindakoaren berri emateko eta datozen bi urtean zer egin proposatzeko.

## Besteak beste, betekizun diren lanak burutzea ego-kituko zaio...

Bai. Hala ere, eginkizun batzuk gauzatu ditugu, KEPen agertu ez arren. Arte Eszenikoen Goi Mailako Eskola Ofiziala dela eta ez dela, Hezkuntza Sailarekin ari gara lanean, bideragarria den ala ez erabakitzeko. Baina, kontu horiek gorabehera, egia da, asmoa KEP al bait gehien garatzea dela. Agintaldia bukatzen denerako, hau da, 2008rako, lortu nahi dugu plana ahalik eta gehien bete dadin. Horixe da asmoa, nahiz eta beste lan batzuk ere egingo diren.



## KEP aurkeztu zenean, kulturaren euskal eremua egituratzea zen helburu. Lau urtean, lortuko al da hori?

Nik esan nezake sektoreek KEPen proposatu zituzten ekintzak –120 inguru, oker ez banago– gauzatu egingo direla eta, seguru egon, kulturaren arlo guztiei eragingo dietela. Esate baterako, ez genuen informazio lerrorik eta orain behatoki bat dugu, kultura estatistikak izateko. Ez genuen finantzabide lerrorik –kultura arloaz ari naiz–, diru-laguntzak besterik ez, eta orain ikus-entzunezkoen finantzabide lerroa zabaldu da, mailegu itzulgarri eta guzti. Ez genuen erakunde arteko koordinaziorik eta orain, aldiz, hilerio biltzen dira gobernua, hiru aldundiak eta EAeko hiru hiriburuetako ordezkariak; gainera, alde aurretik, bilkurak prestatzeko eta politikak hitzartzeko, talde tekniko batekin izaten dituzte bilerak. Era horretako ekintza ugari ari dira aurrera eramaten, eta berriak dira. Lehen ez zen politika parte hartzailek egiten eta, orain, sektore guztiak lan taldeetan banatuta daude, proposamenak egiteko, asmoak hezurmamitzeko, egindakoak gainbegiratzeko, lan berriak agindu eta berbatzeko. Gainera, Etxepare Institutuaren bidez kanpoko harremanak bultzatu nahi ditugu. Hortaz, KEPe aldaketa sakona ekarri du kultura politikara.

## Beraz, lehen, diru-laguntza eta inbertsioetan oinarritutako kultura politika genuen. Besterik da orain-go...

Bai. Kultur politika tradizionala horixe da leku guztietan: diru-laguntzak ematea, dela enpresa eta pertsonen –izan sortzaile edo bestelakoa–, eta inbertsioak egitea ondare eta azpiegituretan. Horixe da –nolabait esatearren– Malrauxen garaitik hona indarrean egon den kultura politika. Dena dela, bide hori iristen den lekuraino iristen da, ez urrunago, baina eutsi egin behar zaio. Ezin da diru-laguntzarik gabeko ikus-entzunezko irudikatu, zinemagintzarik ez besterik, eta ez dago ondarea babestuko duen mezenasik. Beraz, Herri Administrazioak egin behar du lan hori. Eta horrez gain, ahalegin handiagoak egin behar ditu. Bultzada eman behar dio kultur ekoizpenak egiteko gaitasunari, ekimen pribatuaren eskutik edo sortzaileen beraien aldetik. Kontuan hartu sortzaileak ere autoenplegatzaile izan litezkeela, ekimenik baldin badute, behinik behin. Horrek esan nahi du industri politikaren bideak urratu behar direla, enpresa haztegien nahiz aholkularitza egokiaren laguntzaz, betiere ekoizpen bide egokiak sortzeko. Horretarako, merkatuaren berri izatea ezinbestekoa da, kreditu merkeak eskuera izatea, eta beste.

## Kultura Sailak proiektu handiak ditu 2007rako: Artxibo Historiko Nazionala (Bilbo), Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa (Donostia), Euskadiko Zinemateka (Donostia), Ekaingo kobazuloaren erreplika (Zestoa, Gipuzkoa), Gasteizko Santa Maria katedrala, Arabako Arkeologia Museoa (Gasteiz) eta Ipupomamua Zentroa (Asteasu, Gipuzkoa). Zenbate-raino galaraziko dute proiektuok KEP aitzinatzea?

Batere ez. Proiektuok beren bidea eta kudeaketa dituzte. Administrazioak diruz laguntzen die, kultura azpiegituren inguruko planak laurteko honetarako jasotzen duenez. Hortaz, ez dago arriskurik. Proiekturik gehienak Azpiegiturei buruzko Planeari aurreikusita daude; era berean, Artxibo Historiko Nazionalari dagokionez, Inbertsio Ekonomiko eta Sozialei buruzko Plan Bereziaren barruan dago. Horrez gain, aurtun, KEPi zuzen-zuzen lotutako partiden kasuan (zabalpena, sustapena, sorkuntza eta ondarea), %11 igotzea ezarrita dago aurrekontuen proiektuan. Hau ez zen gertatu lehenagoko aurrekontuetan, oso gutxi hazi ziren eta. Bestetik, ohiko aurrekontuari gehitzen badizkiogu Artxibo Historikoa egiteko erabiliko diren 7,5 milioiak, guztira 60 milioi inbertituko dira zabalkundean eta ondarean.

## Esan duzu.

Esan beharra neukan, zera argitaratu baita zenbait egunkaritan: Kultura Sailaren aurrekontuak aurtun %2 baino ez direla igo. Egia da, baina ohiko hazkunde gordina %11koa izan da kultura politikaren kasuan, zentzu hertsian, (kirolak, gazteria, hizkuntza politika eta EITB kontuan hartu gabe). Abiapuntu hau garrantzi handikoa izanda ere, etorkizunean, ezbaierik gabe, hobetu behar da.

**Miel A. Elustondo**  
Idazle eta argazkilaria



# Barraskiloaren konpasean

## Slow mugimendua: astiro bizitzen hasteko garaia

**Fast food zer zen ikasi genuen duela urte batzuk. McDonalds izena entzun genuen eta, ondotik, hamaika jantoki etorri ziren, Burger King, Telepizza, Bocatta... soka batekoak denak. Janari azkarra gure eguneroko bizimoduan sustraitu orduko, haren kontrako mugimendua sortu zen: Slow food.**

XX. mendearen hasieran, abiadurak esanahi baitezpadakoa hartu zuen. Sasoi hartako mugimendu futuristaren goiburua mamitsua da oso: “Metrailaren gainean korrika, ibilgailu burrunbatsua Samotraziako garaitia baino ederragoa da”. Eta, askoren iritziz, ehun urte geroago ere, soinu haren arabera ari gara dantzan. Oraindik ere udaberriaren gaudela, neguko moda erakusten digute diseinatzaileek. Zenbait herrialdetan, “24 orduz irekita” dute bizilege eta, gurean ere, goizeko hamarretatik iluntzeko hamarretara arteko ordutegiak gero eta ohikoagoak dira. AEBetako behialako mall-ak gure hiri guztietako paisaia dira: goizean goizago joan, erosketak egin, janari azkarra irentsi, krispetak janez filma ikusi eta etxera. Eguzkirik baden ere ez dakigula.

Hala ere, bizimodu eroak aspaldi enarazi zuen kezka. *Slow down* (astiro) esaten hasi ziren batean eta bestean, Austrian, Japonian, AEBetan, Kanadan... “Astiro! Ez joan lasterka, ibili oinez lasai!” ari ziren, era batera zein bestera, ahots denak.

### Slow food, janaria baino gehiago

Mantsotzea dela eta, *Slow food* mugimendua dugu ahots askoren nahikundearen ongien bideratzen asmatu duena. Berez, mugimendua ez ezik, elkarteak ere bada *Slow food*. Italiako Piemonte eskualdeko Barolo herrian sortu zen 1986an, Carlo Petrini kazetariaren ardurapean. Pertsona hori, nonbait, erabat gaizkitu zen Erromako Espainia plazako mailadiaren oinetan janari azkarra zerbitzatzeko jantokia –orduan ere *McDonald’s*– ireki zutenean. Orduantxe egin bide zuen urak gainezka, sortu bide zen kontzientzia garbia: janari tradizionala babestu beharra zegoen; biodibertsitatea, janari azkarraren aitzia. Urte hartan bertan, Parisen, mugimendua eratu eta izena eman zioten, *Slow food*. Logotipoa ere asmatu zuten, aski adierazgarria: barraskiloa.

Janari azkarraren kontrako mugimenduak –azken finean, bizimodu arnasarik gabekoaren kontrakoak– *Slow food* elkarteak egituratu zuen. Haren asmoekin bat datorren jendeak, hala nola sukaldari, nekazari, gastronomo, unibertsitate irakasle, funtzionarioek... *convivia* izeneko talde txikiagoak eratzeko joera hartu du eta, horien bidez, *Slow food* elkarteak gaur egun 80.000 lagun ditu bost kontinenteetan barreiatuta: Italia, Suitza, AEB, Frantzia, Japonia eta Britainia Handia dira joera berriari gehien lotu zaizkionak. Euskal Herrian ere hainbat dira mugimenduekin bat egin duten herritarrak; horiek guztiak elkartu eta *conviviak* osatu dituzte Baiona, Bilbo, Gasteiz eta Donostian.

Dena dela, helburua janaria bera baino zabalagoa da: bizimodua, alegia. Arinka eta presaka bizitzearen kontrako mugimendua da *Slow food*; biziera gizatiarragoa du aldarri. Horren haritik, xede hura bereganatu nahi zuten herriek *Slow* izeneko hiriak ere sortu zituzten. Lehenengoa Italian bertan fundatu zuten, Cuneo eskualdeko Bra hirian, eta egun, 800 kide baino gehiago dira munduan, berrogeita hamar herrialdetan banaturik, nahiz eta horietatik erdia Italiako bertakoak diren. Euskal Herrian, Mungia (Bizkaia) dugu hiri mantsoko bakarrenetakoa. Toki hauetan hainbat ekitaldi antolatuko ohi dituzte –hitzaldi, mahai inguru eta lagunarteko otorduak, besteak beste–, herriari kultura berri horretara egokitzen laguntzeko.

### Slow, arlo guztietan astiro

Janariari lotuta hasi zena bizimodu dugu gaur egun. *Slow* aldarrikatuko dute nekazariak: agrobiodibertsitatea. Sendagile eta erizainek zera diote: “Lege berria astiro jatea da, astiro lan egitea, eta hil ala biziko kasuak ere astiro tratatzea”. Berdintsu esango dute hezkuntzako profesionalek, eta ikasgaietan behar besteko denbora emateko aginduko dute. Hirigintzan, astiro ibiltzeko ingurua eraikiko dute arkitektoek. *Slow travel!* defendituko dute bidaiaria agentziek. Eta badira *Slow sex!* diotenak ere.

Nork bere esparruan, *slow* zaleek eginahalak eta bi egiten dihardute.

Galdera berez dator: “Eta, zer egin? Erlojua zaborrontzira bota?”. *Slow* zaleek hori baino errealismo handiagoz jokatu nahi dute: “Ez, hori ere ez. Kontua ez da abiaduraren kulturen ordeztasunarena ezartzea. Okerra litzateke hori. Eginkizunei behar den denbora eskaintzea da gakoak. Lastertasuna moteltzea, alegia”.

**Hainbat dira *Slow food* mugimenduaren berri ematen duten web guneak. Eta ugari dira haren ondotik sortu diren korronteen berri ematen dutenak. Hona hemen horietarik batzuk:**

- [www.slowfood.com](http://www.slowfood.com)
- [www.cittaslow.net](http://www.cittaslow.net)
- [www.simpleliving.net](http://www.simpleliving.net)
- [www.slowmovement.co](http://www.slowmovement.co)
- [www.slowbook.org](http://www.slowbook.org)
- [www.slowtravel.com](http://www.slowtravel.com)

**Era askotako atxikitasunak ditu *Slow food* mugimenduak Euskal Herrian. Hasi berria bada ere, poliki-poliki ari da zabaltzen. Mugimenduarekin bat egiten duten lau iritzi bildu ditugu orriotara. Nekazaritza, Bilboko *convivia*, Mungia hiri mantsoa eta osasun arloa ageri zaizkigu, zeinek bere ikuspegi berezia emanaz.**



### **Jose Antonio Torrontegi** **Mungiaiko alkatea**

2005eko apirilean Brako (Italia) udaletxera deitu genuen lehenengo bider. Eurek harremanetan jarri gintuzten *Cittaslow* mugimenduaren arduradunekin. Hortik aurrera, beharrez hasi ginen. Lehenik eta behin, Mungian egindako ekintzen dossier bat prestatu eta Italiara bidali genuen.

*Cittaslow* mugimenduko kide izateak hainbat ekintza bultzatze-  
ra behartzen gaitu: energia berriztagarriak erabiltzera, konpostatze-  
ra, zaratak kontrolatzera, gero eta gehiago birziklatzera eta,  
batez ere, herritarrei –gurean, mungiarrei–, elikagai ekologi-  
koen eta teknika naturalen bidez sortutako produktuen balioa  
jakinarazi eta azpimarratzera. Horrexetan gabilta.

Nik esango nuke oraindik hasi baino ez gabela egin *slow* alo-  
rrean. Horri dagokionez, Mungian –orain arte, behintzat–,  
ez dugu desadostasunik izan. Herritarrak bat datoz *slow* mug-  
imenduaren asmoarekin.

Orain arte egindako guztia dela eta, ez dugu ikuskapenik izan.  
Baina, egindakoen artean, adibidez, astiro ibiltzeko kartelak  
jarri ditugu Mungiaiko sarreretan. Bestalde, ikastetxeetan ortuak  
egingo ditugu umeez bertoko produktuen berri izan dezaten;  
guztia *slow* filosofian oinarriturik.

Esanak esan, azpimarratu beharrekoa da Mungiaiko udalerririk  
aspalditik betetzen dituela *slow* mugimenduak eskatzen dizki-  
gun ezaugarrietako asko. Hala ere, ez da erraza herritarren  
eguneroko bizimoduaren abiadura aldatzea. Gure ustez, apurka-  
apurka aldatuz joan beharreko kontua da.

Dena dela, onurarik garrantzitsuena *slow* kontzientzia lortzea  
da. Umeez eskoletan ikasten badute benetako produktuak  
bereizten eta bertoko janaria aintzat hartzen, nagusiak direnean  
transgenikoen kontra egongo dira. Ondorioz, mundu hobea lor-  
tuko dute.



### **Mariano Gomez** **Bilbao-Bizkaia Convivium-eko fiduziariora**

*Bilbao-Bizkaia Conviviuma* 2006ko maiatzeko kontua da. *Slow food* proiektuan parte hartzen duten hainbat osagarri bildu nahi izan ditugu bertan: sukaldariak, arraza autoktonoekin lan egiten duten teknikariak, landa munduko jendea, eta *Slow* hiriekin behar egiten duten udaletako ordezkariak. Helbururik nagusie-  
netariko bat honaxekoa da: euskal produktuak ez galtzea, bikai-  
nak baitira ikuspegi organoleptikoaren arabera. Bestetik,  
produktuok estimatzen dituzten kontsumitzaileei eskuera jar-  
tzea. Azkenik, hitzaldi, mintzaldi, afari, haur topaketak eta beste  
antolatzea, euskal elikagaien ondarea haien artean zabaltzeko.  
Esate baterako, Mungiaiko Sukalki Egunean hartu dugu parte,  
bai eta Zallako tipula gorriaren aurkezpenean, Nazioarteko  
Gustu Aretoan eta Torinoko *Terra Madre* topaketan ere. Tori-  
non, adibidez, Karrantzako gazta, Zallako tipula gorria, euskal  
oiloa eta euskal antzararen arrautzak izan ziren erakusgai. Gure-  
an, berriz, hurrena, Plentziako txirla eta Azpigorri antxumeari  
buruz jardungo dugu.

Ez gara bakarrik ari. Harreman estuak ditugu gainerako *convi-  
via*-ekin eta Biodibertsitatearen aldeko *Slow food* fundazioare-  
kin, bai eta Euskal Abereak elkartearekin nahiz mundu zabalean  
bateko eta besteko euskal etxeekin ere. Oro har, hartu-emanak  
ditugu gai hauekiko sentiberatasuna erakutsi duten bestelako  
hamaika elkarte eta udaletxe, ikerkuntza zentro, hazi sare, uni-  
bertsitate eta antzekoekin ere.

*Slow* mugimendua etengabe ari da hazten. Elikadura ona osa-  
sungarria da, elikagai naturalak onenak dira, arraza eta barietate  
autoktonoek beste inork ez bezala zaintzen dute ingurumena.  
Gure nekazari, baserritar eta arrantzaleen produktu freskoak  
defenditzen ditugu.

Gure ustez, kontua produktuok ekoizleari berari zuzenean eros-  
tea da, azoka tradizionalan edo lekuan bertan, asteburuetan  
adibidez, haurrekin batera, baserria, ortua, ganadua edo portua  
zer diren jakin dezaten. Bertoko produktuei darien maitasunaz  
jabe daitezten.



## Paul Nicholson EHNEko sindikalista

Jatea ez da, beste barik, ekintza fisiologikoa. Egunero hartzen dugun erabakia da, erabaki politikoa. Haren arabera definitzen ditugu gure osasuna, landa mundua eta ingurumena, tokian tokiko ekonomia eta nekazaritza eredu iraunkorra. Catering-ak ez digu jaten ematen, pertsona kate konplexu batek baizik. Pertsona horiek lurra edo itsasoa lantzen dute eta gure janaria eraldatu eta maneatzeko dute. Azken batean, nekazaritza, arrantza, elikagaiak, gizartearen arazoak dira, ez merkatuaren gorabeherak. Pertsonak ematen diote jaten munduari, ez merkatuak edo merkataritza gune handiek. Baserritarren eta arrantzale artisauen egitekoa garrantzi handi-handikoa da. Askok ahaztu egiten du hori.

Guk, EHNE sindikatuak, bat egiten dugu *Slow food* mugimendurekin, gure indarrak batu eta gizarteari mezu bat transmititzeko: elikagaiak herrien kultura eta nortasunaren atal oinarritzakoak direla.

Biodibertsitatearen alde lan egin nahi dugu, hazia baita lurrari lotzen gaituen sustraia. Sustrai nagusia. Agrobiodibertsitateaz hitz egiten dugu guk. Dibertsitate genetiko eta kulturalaren alde egiten dugu lan, nekazaritza industrialak suntsitu nahi duen aniztasunaren alde, hain zuzen.

Gure elikagaien oinarrian hazia dago. Hazia gure kulturaren barruko elementua da, herri baten nortasunaren parte, tokian tokiko ekonomiaren abiapuntua. Betiko produktuak kontsumitu behar ditugu, eta arrazoiak ez da soilik ekonomikoa, kulturala baizik. Gure jatorriari eta inguruari loturik dago.

Zergatik jan behar dugu denok tomate mota bera, tomate dibertsitatea hain handia denean, tomate barietate asko dagoenean? Merkataritza legeek tomatearen homogeneousutasuna dakarkigute: tomate kolore bat, tomate gustu bat. Horrek gure kultura eta nortasunari eraso, bertoko haziaren etorkizuna kinka larrian jarri eta atea zabaltzen die produktu transgenikoei. Eta, bertoko jatekorik gabe, zertan izango da gure kultura, zertan gure herriaren nortasuna?

Jatea ekintza politikoa da. Merkatuak ez du jaten ematen. Elikadura denon ardura da.



## Pedro Ramos UPV-EHUko Farmazia fakultateko irakaslea

Dudarik gabe, osasuna da *Slow food* mugimenduaren onurarik handiena jasoko duenetakoa. Izan ere, elikagai eta abereen hazkuntza iraunkorra bultzatzen du, hau da, modu tradizionala. Ondorioz, elikagai hobekak izango ditugu eta horrek, noski, osasun hobea eta gaixotasunak aurreikustea dakar. Mugimendu honek mundu zabaleko janariaren uniformetasuna galarazi eta lekuan lekukoari eman nahi dio bultzada, “janari azkarraren” kontra.

Elikagaiak nekazaritza iraunkorraren emaitzak dira, abere hazkuntza tradizionalatik datoz, arrantza ez-traumatiko batetik... eta, bistan da haien usain, gustu eta osaketa ere hobekak izango direla. Elikagaiak naturalek, bestalde, proteina gehiago dituzte, ur gutxiago, koipe saturatu gutxiago, eta balio handiagoa bitamina eta mineraletan. Beraz, uste dugu gaixotasun kardiobaskular gutxiago izango direla, minbizi mota jakin batzuetako kasu gutxiago... Gainera, gaitzakeria eta obesitatea hobeto kontrolatzen lagunduko lukete.

Egia da gaur egun, oraindik, *Slow food* mugimendua ez dela osasun plangintzetara iritsi, jende gutxi dagoelako haren jakinaren gainean. Mugimendua indartuz gero, jateko ohitura osasuntsuak hedatuko liratekeelakoan nago; besterik ez bada ere, janari azkarraren, elikagaien globalizazioaren eta gustuen zapore uniformetasunaren kontra dagoelako. Horiek, azken finean, multinazional bakan batzuen esku daude.

Nire iritziz, filosofia modu hau zabaltzea komeni da. Esaerak honelaxe dio: “Hobe da oinez eta segurura, eta ez azkar eta zulo-ra”. Edo kantu hark: “Pausorik pauso beti bidea eginez...”. Erabakiak hartzerakoan, jaterakoan, lotarakoan, tentsio arterialarentzat, zuku gastrikoen sekrezioarentzat, glukemia maila kontrolatzeko... hobe da oinez eta segurura. Azkar jarduteak ez digu elikagaiak dastatzen uzten, eta horixe da janariak duen plazerik handiena! Presaka ibili beharrak azkarrago jatera behartzen gaitu, nekezago asetzen gara eta behar baino kaloria gehiago hartzen ditugu... Ez dago kolorerik! Bizitza honetan, gauza guztiak, presarik gabe, baina etenik gabe.

**Miel A. Elustondo**  
Idazle eta argazkilaria



# Mendebala dabil

GAUR EGUN EUSKALKIA *VERSUS* euskara batua eztabaida zeharo gaindituta badago ere, oraindino, zoritxarrez, euskalkien gaineko zalantza larregi sumatzen dira bazterretan. Aurreko batean, esaterako, euskaraz ondo ere ondo dakien pertsona batek galdetu zigun ea “eguztana” hitza euskara batua den ala ez. Itaun horri erantzuna ematea errazerraza da, baina kezka eta arduraren horrek funtsean sakoneko beste arazo bat estaltzen duelakoa daukat. “Eguztana”, jakina, euskara batua da, berba hori Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan beren beregi jasotzen delako. Beste kontu bat da bizkaieraren eremu osoan “asteazkena” esateko erabiltzen den izen hori euskara estandarra den: hortxe eztabaidaren mamia.

Jon Agirrek ederto azaldu zuen IVAPek 1994an argitaraturiko *Hizkera argiaren bidetik* liburuan: “...estandarra inorena ez den baina denontzat ezarri den hizkuntza-aldaera supradialektala dugu, hau da, dialekto-aldaerez gaindikoa, hizkuntza bereko hitzun guztiek, idatziz gutxienez, elkar ulertzeko prestatua”.

Bestalde, Euskaltzaindiak *Adierazpena euskalkien erabilera*z agirian argi eta garbi adierazten du euskalkiek eta euskara batuak elkarren osagarri izan behar dutela, “...elkarren aberasgarri izan behar dute: zehatzago esanda, euskalkietako formek berezko bide izan behar dute euskara batuko formetara heltzeko”.

Kontzeptu eta ideien nahas-mahas honetatik abiatuta, idazlan xume honetan bizkaieraren zertzelada batzuen berri eman nahi izan dugu, horietariko batzuk euskara baturako guztiz egokiak izan arren, beharbada eguneroko aldaera estandarrean behar beste zuztatu ez direlako. Beraz, bizkaieraren zenbait alderdi aipagarri eta jakingarri azalduko ditugu labur-labur; horretarako, aipatu beharra dago Labayru Ikastegiak prestatutako *Bizkai euskeraren jarraibide liburu* ederrean ageri diren azalpen eta adibide batzuk hartu ditugula oinarri. Iturburu bizkaieran dute, baina hona bildu ditugun ezaugarriak gure hizkuntzaren ondare dira eta, hortaz, guztiok –eta batez ere euskalki honetako hitzunok– aintzat har genitzake, euskara estandarren mugak zabalduko badira.

## Aditza

- ▶ Bizkaieraz hiru perpaus kompletibo erabiltzen dira:

–*Etorri dela esan du / Egia da Madrilan dagoena / Ez dut uste etorri denik.*

- ▶ Galdegaiari dagokionez, bizkaieraz ondo bereizten dira:

–*Maite jausi da / Maite jausi egin da.*  
–*Maitek jan du / Maitek jan egin du.*

- ▶ Bizkaieraz oraindik aditz trinko ugari ditugu:

–Iritzi: *deritzot, zer deritzozu?*  
–Ekarri: *zer dakarzu eskuartean?*  
–Eutsi: *frontoia elizari deusola dago. Eutso honi!*

## Bereizketak

Bizkaierak beste euskalkietan galduz joan diren zenbait bereizketa egiten ditu.

- ▶ Erreflexiboak: *neure, zeure...*

–*Nire txakurra oso polita da / Nik neure txakurra maite dut.*  
–*Gure herria sano ederra da / Guri geure herria gustatzen zaigu.*

- ▶ Bizkaieraz ongi bereizten dira *bere / beraren*.

–*Amak bere umea maite du. Beraren ahizpak ez.*

- ▶ Intentsiboak: *neu, zeu...*

–*Ni beti joaten naiz / Neu joango naiz.*

- ▶ Deiktikoak

Urruntasuna edo hurbiltasuna adierazteko erakusle ezberdinak erabiltzen ditu bizkaierak. Hurbiltasuna adierazteko lehengo euskaran eta bizkaieraz *o* morfema erabiltzen da.

–*Hor bertan dago.*  
–*Nik goizean egin dut.*  
–*Aspaldion ez da etorri.*  
–*Oraingo gazteok.*  
–*Guztion beharra daukagu.*

## Errepikatzea

Errepikatzearen bidez, bizkaierak esamolde politik sortzen ditu.

- ▶ Aditza aldi ezberdinetan errepikatuz:

–*Bilbo polita da izan / Jakin badakigu / Etorri zator / Badao joan / Beharra amaituta dauka eduki.*

- ▶ Substantiboa errepikatuz “guztietan” adierazi ohi da:

–*Lekuan-lekuan txakurrak ortozik / Egunean-egunean joaten da azokara.*

- ▶ Sarri-sarri entzuten da superlatiboa hitz bera errepikatuz:

–*On-ona da / Polit-polita da.*



## Morfologia

- ▶ Bizkaierak oro har ondo zaintzen du *-a* organikoa: anaia, gauza, eliza, arnasa, e.a.
- ▶ *-rik* + superlatiboari sarritan eusten dio bizkaierak:
  - Txakurrik ederrena.*
- ▶ *-rik* + adberbioa. Maiz entzuten da.
  - Ordurik asko dauka egunak behar egiteko.*
- ▶ *-txo, -txu* txikigarriak maiz erabiltzen ditu bizkaierak: *apurtxo bat, gutxitxo, txikitxo, katutxo...*

## Posposizioak edo hitz atzekariak

Era guztietako hitz atzekari edo posposizioak erabiltzen dira bizkaieraz. Hona hemen euskara estandarrean hain ezagunak ez diren horietariko batzuk:

### ▶ Adi:

Genitiboaren marka ezarrita, noren edo zeren adi egoteak, itxaroten edo zain egotea adierazten du.

- Gure adi egon barik, arin egin du alde.*
- Horren adi bazaude, jai duzu.*

### ▶ Aginean, aginik:

Aditz partizipioaren atzetik agertzen da testuetan, eta arriskua edo egoera larria azaltzen duten aditzekin ia beti: *hil, galdu, ito, jausi...* Adierazitako jazoera edo ekintza berehala gertatzeko zorian dagoela adierazten du.

- Hondartza honetan ito aginean egon nintzen.*
- Hil aginean dago.*

### ▶ (-) Arren:

Izen-adjektiboekin batera azaltzen denean, batera idatziko dugu. Hainbat eta hainbat berbarekin elkar daiteke: *pozarren, lotsarren, Jainkoarren, motzarren, ederrarren, nagiarren...*

- Motzarren, neskek ez dute harekin ibili gura* (itsusia, motza, delako, alegia).
- Pozarren egingo dizut mesede hori.*

### ▶ Bako:

Ahoz eta idatziz *bako* forma da nagusi, eta hori berori erabiltzea gomendatu ohi da, tradizioan baga eta bagako erabiltzeak izan diren arren. Lexikalizaturik azaltzen da hitz

askotan: *ardurabako, lotsabako, ganorabako, zuztarbako, gazbako...* Baina, substantibo legez edo aditz partizipioarekin batera ere erabil daiteke: *diru bako pertsona, inon ikusi bako gauzak...*

### ▶ Begira:

Nagusiki adiera bi ditu: begiak norabait zuzenduta izatea eta zerbaiten esperoan egotea.

- Harri eta zur, zerura begira geratu zen.*
- Noren begira egin duzu hainbeste denbora?*

### ▶ Garrean:

Ordinalak adierazteko erabiltzeaz gain, bizkaieraz denbora eremuko izenekin azaltzen da, jazokizun bat handik aurrera izango dela azaltzeko.

- Etzetik joan eta handik hiru egun garrenera etorri da atzera ere.*
- Astebete garrean osatu ziran gaixo guzti-guztiak.*

### ▶ Pentzudan:

“Ardurapean” formaren baliokidea dela esan beharra dago.

- Arazo hori nire pentzudan laga zuten.*
- Dirurik ez duenez, beti ibili behar du inoren pentzudan.*

Amaitu baino lehenago, hala ere, IVAPek 2005ean argitaraturiko Estilo Liburuan euskalkien ezaugarriak erabiltzeko emandako gomendioa ekarri behar da gogora: “[...] Kontua, beti bezala, neurria da; izan ere, inongo euskalkietan elkarren ondoan agertzen ez diren hitzak eta joskerako egiturak bata bestearen atzetik jarrita, esapide nahasiak sortzen dira: Esate baterako:

- ↓ *Beste barik txostenaren egitera bidali gaitu.*
- ↓ *Bihar joango naiz zuzendariarengana eta eskura emanen diot bere potreta.*

Beraz, egokitasuna eta koherentzia zainduta erabiliko ditugu hitzak eta joskerako egiturak”.

Hainbatek igarriko zenutenez, honako zerrendan azaltzen diren adibideetariko batzuk mendebaldeko euskararen eze, bestelako euskalkietan ere agertzen dira. Ez ahaztu geuretik abiatuta eder-to joka genezakeena euskara koloretsu, bizi eta estandarrago baten alde, hurren daukagun edo etxean nahiz kalean hitz egiten dugun euskalkia edo aldaera edozein delarik ere.

**Joseba Terreros**  
**IVAPeko Administrazio Hizkeraren Atala**



## Agur

KRISTALEZKO ATE BIKOITZETIK sartu da Maria, beroki gorri-gorrian bilduta, mila koloreko eskularru eta lepokoaren babesean; poliki, irribarretsu. Atezaina egun on lasaiaz agurtu du. Ez ditu Jonek, baina, begiak ordenagailuaren pantailatik altxatu. Betaurreko txikien atzeko begi urdin langileek ez diote mostradorearen beste alderaino iritsi den Mariari begiratu. Mariak badaki, ordea, Jonek bada-kiela han dagoela; izan ere, lau hilabete pasatu dira, astero-astero leihatila berera hurbiltzen denetik, aste bakoitzean hurrengo asterainoko bizi baimena izango balitz bezala, Joni hitzordua eskatzen dionetik.

Badaki, jakin ere, Jonek, Maria duela mostradore aurrean, gaur ere irribarrez, beste txanda bat, beste aukera bat eskatzera etorria dela.

Gogoratzen du, lau hilabete aurrerago, Maria etorri zitzaion lehen aldia, haren begi bizi-bizi dantzariak Usabiaga doktorearentzat, onkologo famatuarentzat, ordua eskatu ziotenean. Gutxi bezala etorri zen lehen aldi hartan Maria, pozik, heriotza iragarriko zion mediku lanpetuarekin tokitxo bat eskuratzerara. Betaurreko gainetik zuzendu zitzaion orduan Jon, eta irribarrea eskaini zion lehen aldi hartan, haren pozaz harrিতuta, haren bizi-indariak kutsatuta; lausoa, edo goibela, edo izutua, edo haserrea izaten baitzen 4. leihatilaraino iristen ziren bezeroen aldarrea gehienetan. Izan ere, gaixotasun larrien berri izan ondoren etortzen zitzaizkion berari pazienteak, hurrengo kontsulta baterako txanda eske. Baina Maria... Mariari bizitza zerion begietan, ile luze ondulatu beltz-beltzean, *bakero* estuetan erraz mugitzen ziren zango lirainetan, gerri malguan, kamiseta gorri estuaren azpian antzematen zen bular emankorrean, ahotsaren atseginean. Kostatu zitzaion Joni lehen aldi hartan begiak ordenagailura zuzentzea, ordutegiak behatu eta eskatzen ziotena ematea; udazken hartako hego haizeak lurreko hostoak aineratu eta bere baitan bilduz erabiltzen zituen; antzera sentitu zen Jon, Maria inguratzen zuen aura bizi, nabarraren arnasan zurrupatua. Eta gero, ordutegi osoa eskaini zion, egokien zitzaion ordua aukera zezan. Mariak eskerrak eman zizkion irribarrez eta Jonek begiekin lagundu zion kanpoko kristalezko ate bikoitzeraino eta handik harantzago.

Lehenengo egun hartan, Jonek lana bukatu eta ospitalea utzi aurretik, Mariaren berri jakin nahi izan zuen, nor zen, zergatik zetorren. Eta gero, haren irudiaz blai, kanpora atera zen. Maria sarrera aurreko banku grisean zegoen eserita, aurpegia eguzkirantz biratuta, begiak itxita, irribarrea ezpainenetan. Ondoan jarri zitzaion Jon, eta oraingoan, hitza eskaini zion; norbaiten zain zegoen galdetu zion.

Bizitza dastatzen ari zela erantzun zion Mariak, begiak itxita.

Hainbeste hitz egin dute ordutik gaur arte! Izan dira ferekak, eta muxuak, eta egunak, eta gauak, eta negarrak, eta barreak, ordutik gaur arte!

Baina egun hauetan, haserretu-edo egin dira. Ez dira bizitzeko moduan ados jartzen. Mariak tratamenduak utzi nahi ditu, minbizia ez ezik, gogoa ere hiltzen dizkiotelako, eta barrea, eta bizitzeko duen denbora laburraren poza, eta bizia bera.

Jonek ez du hori ulertzen, geroari begira dago bera beti, gero ondo egoteko gaur egin behar duenaren menpe, ez du gerorik gabeko bizitzarik ulertzen eta Maria balizko geroaz konbentzitu nahi du. Bereari eutsi nahi dio eta ez dio Mariari begiratu nahi, badakielako haren irribarreak limurtuko duela berriz, erraz.

Eta gaur, Mariak ez dio astebete barruko txandarik eskatu mostradorearen beste aldetik, agur esan dio, badoala eguzkiak berotzen duen lurraldeetara, epelean bizi nahi duela, edo hil, eta bere ondoan nahiko lukeela beti, "beti motza" bada ere. Hori esan dio, eta, buruan pirata ausartaren espiritua itsatsia daraman artilezko zapi beltza, ezpata bihotzean, bizinahia begi beltz nekatuetan, mostradorea utzi eta kristalezko ate bikoitzerantz abiatu da. Orduantxe altxatu ditu Jonek begiak. Betaurrekoak ordenagailu ondoan utzi, *Goretexa* aulki adarretik hartu eta atzetik hurbildu zaio Mariari. Barruaren beroa eskaini dio eskuan. Maria estu lotu zaio berearekin. Kristalezko ate bikoitzaren beste aldeko hotza arnastu dute, batera.

**Karmele Igartua**

# Erretiro adina Administrazioan: igo, jaitsi ala bere horretan utzi behar da?

**Erretiroa hartzeko garai eta adin egokiaren inguruan hainbat eztabaida eta uste daude. Igo behar litzateke, Europako herrialde batzuetan egin nahi duten bezala, edo jaitsi, langile batzuen eskaerak aintzat hartuta? Administrazioan erretiro adina 65 urtekoa da gaur egun, baina langileen adin nagusiaren edo ardura handiko lanen ondorioz, nekea sortu eta horrek tarteko zenbait formula ekarri ditu, hala nola lanaldi murrizketa, txanda kontratua, telelana eta bigarren jarduera. Gauzak horrela, auzi honi buruzko iritzia eskatu diegu Administrazioako zenbait kideri.**



**Pablo Ruiz de Gordejuela**  
Funtzio Publikoko sailburuordea

Erretiroko arazuko adina ezartzeko auzia eragin sozio-ekonomiko handia duen erabakia da, eta, hortaz, Administrazioan hartzen den erabakiak koherentea izan behar du herrialdeko

aktibitate ekonomikoa osatzen duten beste sektoreekin. Gainera, kontuan izan behar da horren sostengu eta finantzaketa gizarte osoaren gain geldituko dela. Erretiro adina erabakitzeko alderdi biologiko, ekonomiko eta sozialak hartu behar dira aintzat: bizi itxaropenaren gorakada, lan jardueraren ezaugarriak eta erretiroaren prestazio ekonomikoaren maila, esaterako. Hori guztia gogoan, nire ustez, 65 urteko erretiro adina egokia da. Horrek ez du esan nahi aktibitate batzuen ezaugarri berezien arabera ezin ezar daitekeenik 65 urtetik beherako erretiro adina; irakasleek, kasu baterako, 60 urterekin erretiratzeko aukera dute. Ez litzateke inola ere ahaztu behar Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan zein izan den erretiro adinaren bilakaera. Adibiderik esanguratsuenak Alemania da, bertan 2012rako erretiro adina 67 urtekoa izatea erabaki baitute.

Tarteko formulak zentzuzkoak eta beharrezkoak dira, baldin eta horien xedea betetzeko eta egitura arazoak konpontzeko baliagarriak badira. Txanda kontratua tresna egokia izan daiteke langabeek enplegua lor dezaten, langabezi tasa handia dagoen tokietan. Zorionez, Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera teknikoaren enplegu bete da. Hala ere, txanda kontratuak nahiko laguntzen du lan taldeak gaztetzen eta behargin adintsuen arazo larria konpontzen. Euskal Administrazioak txanda eta ordezte kontratuak eskaintzen duten erretiro partziala hartzeko aukera ezarri du lan kontratupeko behargin, funtzionario eta estatutupeko langileen kasuan, eta, jakina denez, horrelako formulak aplikatzearen alde agertu da. Lanaldi murriztuari dagokionez, hainbat bitarteko eta baliabide ditugu Administrazioan. Arazoa zera da: murrizketak

dakarren lansari murrizketaren maila erabakitzea. Telelana aztertu beharreko formula da, zerbitzuaren kalitateari eragin gabe, langile publikoaren bizi kalitatea hobetu dezakeen neurria delako. Baina ezin da inola ere lanaldi murriztu bihurtu, batez ere langileak lansari bera jasotzen jarraituz gero. Bigarren jarduera gure ordenamendu juridikoan agertzen da, Ertzaintzaren legean, hain zuzen, baina adinaren bidez lortzeko aukera baldintzatuta dago, hariak eta Gizarte Segurantzaren beharrezko legegintza aldaketak aurrera eramanez. Bestalde, Ertzaintzari dagokionez, fondo publikoek huts-hutsean finantzatutako bigarren jarduera bideraezina da.

**Pablo Larrauri**  
Administrazio eta Zerbitzuetarako sailburuordea  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila



Ez dut uste gaur egun erretiroa hartzeko adina aurreratu daitekeenik gure gizartean. Nik neuk malgutasunaren aldeko apustu egingo nuke pertsonen lan bizitzaren azken urteetan. Horrela, norberak modu arduratsuan hartu ahal izango luke lan bizitza laburtu ala luzatzeko erabakia, bere egoera, ahalmen eta beharrak gogoan dituela.

Lanaldi murrizketa, txanda kontratu, telelan edo bigarren jardueraren gisako tarteko formulak dagokionez, nire ustez, txanda kontratua edo antzeko formularen bat izango litzateke egokiena. Kontratu mota horrek bi baldintza onuragarri eta garrantzitsu eskaintzen dituelakoan nago: alde batetik, enplegua sortu eta, bestetik, lan sarea gaztetzeko aukera ere ematen du. Proposatzen diren beste formulak, hau da, bigarren jarduera, lanaldi murrizketa eta telelana bezalako proposamenak ez zaizkit hain baliagarri iruditzen.

## Patxi Agirrezabala ELA Gizalaneko idazkari nagusia



Lehendabizi aipatu beharra dago Administrazioan hainbat sektore daudela eta, beraz, erretiro adinari buruzko beharrek eta egokiak era guztietakoak izan behar dute. Zentzu horretan, ez da gauza bera administrazio orokorrean, Hezkuntzan, Osakidetzan edota Ertzaintzan lan egitea, erretiro adinaz jardutean. Bestalde, gaur egungo egoera diskriminatzailea dela adierazi behar dut. Lan kontratupeko langileek aukera izan dezakete txanda kontratuaren bitartez 60 urterekin erretiratzeko; hala ere, Madrilen onartu duten lan erreforma dela eta, erretiro adina 61 urtekoa izango da. Onura hauek ez zaizkie funtzionarioei aplikatzen, nahiz eta euren erregimen orokorra Gizarte Segurantzakoa izan, lan kontratupekoena bezala. Gogoan izan behar da Euskal Administrazioaren langilerik gehienak funtzionarioak direla. Halaber, Administrazioan batez besteko adina gora ari da eta, alde horretatik, 60-61 urterekin erretiratzeko aukerak sustatu behar lirateke lanpostuen zerrendak berri eta gaztetzearen.

Nire ustetan, taxuz aplikatuz gero, tarteko formulak oso neurri eraginkorrak lirateke. Gakoa beste eremu batean dago une honetan. Batetik, txanda kontratua lan kontratupeko langileei baino ez zaie aplikatzen. Beraz, horren eraginkortasun praktikoa oso murrizta da. ELAK aspaldidanik adierazi du neurri hori zabaldu behar zaiela funtzionarioei, baina Administrazioak ez du amorerik eman. Gauza bera esan behar dugu Ertzaintza eta udaltzaingoaren bigarren jarduerari buruz. Administrazioa denbora gehiegi ari da galtzen neurri hau aplikatzeko, nahiz eta ELAK neurri hori antzintatik aldarrikatu eta gaiari buruzko proposamen landuak azaldu dituen. Balza sailburuak berak hainbat aldiz sistema ezartzeko konpromisoa hartu du, baina orain arte ez da ezer gauzatu. Hezkuntzan ere lanaldi murrizketa aplikatzea ezinbesteko neurria da, irakaskuntzako lan zama dela-eta irakasleek psikologikoki jasaten duten presioa samurtu ahal izateko. Aspaldidaniko aldarrikapena da. Gainontzeko neurriak osagarriak izan daitezke eta horien aldekoa naiz.



## Ismael Gorostiza Medikua

Gai honetan, beste askotan bezala, eragilerik garrantzitsua zera da: Administrazioak bere erronkei aurre egiteko agertzen duen zorrotasuna. Etengabe aldatzen ari den munduan –batez ere enpresa arloari dagokionez–, harrigarria da herri administrazioek XIX. mendean bezala jarduteko eskemak erabiltzea. Nire ustez, gakoa ez da erretiro adina aldatzea, baizik eta administrazio bakoitzak bere langileen behar, helburu, funtzio eta ezaugarri demografikoei egokiro erantzutea. Nola eduki ertzain bat edo suhiltzaile bat bere postuan 65 urteak bete arte? Herritarrei kalitatezko zerbitzua eman al diezaie batez beste 55 urtetik 30 urtera arteko antzinatasuna duen lan talde batek? Zerbitzu egokia eman al dezake, langile horientzako ordutegi eta lanaldiak malgutzeko neurriak hartu ez eta arrisku psiko-sozialak aztertzen ez badira? Kasu horietan, hala ere, erretiro adinaren gaia modu berean jorratzen da. Gizartean funtzionarioek estatus pribilegiatua dutelako ideia ezarri da; horren ondorioz, batzuek esaten dute sektore pribatu

erabiltzen diren erretiro formula malguak ez direla arlo publikoan aplikatu behar. Zergatik dute itsasgizonek murrizketa koefizientea erretiro adina zenbatzean, eta ez hainbeste guardia ordu egiten dituzten larrialdietako sendagileek? Antzeko zerbait gertatzen da osasun eta lan segurtasunean. Zerbitzu arloko langileak nahiko sentiberak dira lanari lotutako gaitzen aurrean, eta estatuko lege araudiak ez ditu gaitz horiek kontuan hartzen. Era berean, *burnout*, *mobbing* eta estresak sorraraziko ondorez mentalak dezente eragiten die sektore publikoko behaginei.

Argudio medikoek arrazoitzen dute Administrazioako langileei tarteko formulak aplikatzeko aukera, betiere lanaren nekagarritasunaren arabera. Formula horiek ezartzeko orduan lan mota, antzinatasuna eta lan arriskuak izan beharko dira aintzat. Erretiro aurreratua, lanaldi murrizketa, bigarren jarduera edo bestelakoak onuragarriak dira langileentzat, hein handi batean langileak berak erabakita hartzen badira. Formula horiek aplikatzeko erabakia enpresa kudeatzaileen esku geratuz gero (neurria bera positiboa izan arren, adibidez, txanda kontratuaren kasuan bezala), ez diete langileei aparteko onurarik ekarriko, egokiro bereizi eta aletu ezean.



**Begoña Minaur**  
Kazetaria

# Garuna, Kaosa eta Google

**O**rain dela hamar urte baino gehiago, kudeaketari buruzko artikulurik onena saritzeko AECA lehiaketa lehen aldiz antolatu zenean, hiru artikulua aurkeztu nituen; horietako bat, enpresa-zuzendaritzan aplikatutako kaosaren teoriari buruzkoa. Artikulu horretan azaldu nuen beharrezkoa dela organizazioen eguneroko jardunean fisika garaikidea sartzea; badakigu ezin dugula etorkizuna iragarri (meteorologoek ere ezin dute-eta asmatu hiru egun barru zein eguraldi egingo duen), baina, era berean, badakigu beste “eragile ezezagun” batzuk ere badirela, eta eboluzioa horietarantz bideratuta dagoela (nahiz eta ez jakin noiz). Kaosaren teoriak bi irakaspen handi emango dizkigu pertsonei, lan-taldeei eta organizazioei: batetik, pazientzia izaten erakutsiko digu (“etorkizuna iragartzeko modurik onena, etorkizuna asmatzea baita”, Alan Kay) eta, bestetik, (gure helburuak lortu nahian) eusten eta ez etsitzen erakutsiko digu.

Hala ere, aldaketaren kudeaketan aditu Richard Pascalek adierazi duenez, enpresako zuzendaritza da fisika berri hori oraindik beretzat hartu ez duen diziplina bakarra. Kaosaren teoria, XX. mendean, onartua dute zientzietan eta arteetan (eta bereganatua ere bai). *Management*-ean, berriz, oraindik ere mundua newtondarra dela sinesten dugu; mundua sinplea dela uste dugu, eta materia “billarreko bolen” antzera dabilela; espazioa eta denbora itzulgarriak eta linealak direla uste dugu. Zer dela eta?


Giza burmuina ez delako, hain zuzen ere, pentsamendu kartesiarrak pentsarazi digun bezain objektiboa, ezta gutxiago ere. Daniel Gilbert Harvard-eko psikologia-irakasleak liburu liluragarria argitaratu berri du izenburu honekin: *Zoriontasunarekin estropezu eginez*. Galdera harrigarri bezain bitxiak egiten ditu bertan: zer dela-eta barkatzen zaio, askotan, maitaleari desleial jokatu izana, eta, ez, ordea, plater zikinak hor zehar barreiatuta uztea? Ikusten duen jendeak zergatik ordainduko luke askoz ere diru gehiago itsu ez geratzeagatik, itsuek ikusteagatik baino? Gaixoen zergatik izaten dute gogoan tratamendu luzeak leunagoak direla, eta laburrak mingarriagoak? Zergatik ezin dugu abesti bat gogoratu, beste bat entzuten ari garen bitartean? Zer dela-eta pentsatzen dugu, ilara batean azken jartzerakoan, aldameneko ilarakoak beti arinago doazela? Bada, egia esan, gure garuna (gure “hiru garunak”: erraietakoa, emozionala eta intelektuala) gauzak aurretiaz jakin beharrean dagoelako, etorkizunak eragiten digun larrialdi eta egonezin hori baretu eta arindu beharrean dagoelako (horrexegatik maite ditugu horrenbeste horoskopokoak, meteorologokoak eta politikako nahiz kiroletako kazetarien iragarpenak); garunak modu asimetricoan gogoratzen du, bidegabeki baloratzen du –betiere, aurreiritziz beteta– eta apetak ematen dion moduan epaitzen du. Senak berez edota zirrarez ematen dizkigun erantzun horiek “arrazoizko” azalpenez janztea,



alegia, gauzak arrazionalizatzea, horixe da gizakiak bere burua babesteko sortu duen tresna indartsua. Izaki biziak garenez, ez gara animalia arrazoidunak, *arrazionalizatzaileak* baizik. Zerikusirik ba al du horrek guztiak kaosaren teoriarekin? Gilbert irakaslearen iritziz, “gure itsasontzia gidatzen saiatzen gara, nahiko argi ikusten dugulako zein den gure helmuga; baina, egia esan, gure kapitain-lanik gehienak ez du ezertarako ere balio; itsasontziak erantzuten dio gure aginduari, bai, eta guk aurki genezake geure helmuga, bai... baina etorkizuna bera da ezinbestean ezberdina, hau da, gure ‘iragarpenometroan’ agertzen denaz bestelakoa. Irudipenak izaten ditugu ikusmenean, baita oroimenean ere; eta aurreikuspenetan ere irudipenak izaten ditugu”. Gure garuna *gertakizunaren aurretik ibiltzeko makina* da. Gero gerta litekeenaz pentsa dezaketen animalia bakarrak gara. Eta geroa irudikatzen, amesten eta kontrolatzen saiatzen gara. Bai, hutsuneak bete nahian, oroimenak iragana “trukatzen” du, eta irudimenak etorkizuna “trukatzen” du. Erakundeen munduak ere, funtsean, partaide dituen guztien buruak, bihotzak eta ahaleginak islatzen ditu (nahiz eta batuketa algebraikoa ez izan).

Zer egin behar dugu, orduan? Beste ingurune batzuetarako balio zuen guztia desikasi, eta kaosak nola funtzionatzen duen berrikasi behar dugu. Peter Drucker zenak erakutsi zigun: zerbait aldatu behar denean, horretan aitzindari izatea, horixe da apustua. Eta horretarako jokabide nagusia horixe da, “iragana abandonatzea”. Atzo funtzionatzen zuenak gaur ez du ezertarako balio, nahiz eta oroimenaren nostalgiami eusten ahalegindu.

Bizitza honetan egokitu zaigun ingurunea hitz bakar batez deskribatzekotan, hain zuzen ere, KAOSA izango litzateke hitz hori. Duela 20 urte, munduko 500 konpainiarik handienetik %35 arrisku-maila handikoak ziren *Standard & Poors* indizearen arabera. Gaur egun kopuru hori bikoiztu egin da (%73). Enpresa handi horietatik %41 arrisku-maila txikikoak ziren 1985ean. Kopuru horren herenera ere ez gara iristen 2006an (%13). Bezeroak gero eta zorrotzagoak dira, teknologia gero eta arinago ari da garatzen, talentuak mugikorrek dira eta batetik bestera dabilta (gero eta konpromiso txikiagoa), globalizazioa gero eta handiagoa –laster iritsiko zaigun internazionalizazio-mailaren laurdenera



ere ez gara iritsi oraindik–, zuzendaritzak toxikoak dira, egiturak aspaldikoak dira, negozio-ereduak zaharkituak daude... Etorbizuna ez da lehen zen modukoa...

*Fortune* aldizkaria, 2006ko urriaren 9ko argitalpena. Azalean, Eric Schmidt, 125.000 milioi dolar balio duen konpainia bateko kontseilari-ordezkarria. Izenburua: “Kaosa Googlen”. Ez; 1998ko irailaren 7an sortuta, Internet barruko joko-arauak birdefinitzen ari den enpresa laudagarri horri ez doazkio gaizki gauzak; ez da hori kontua, ezta gutxiago ere! Kontua da “anarkia ere planaren osagai dela”. Googlen, oreka bilatzeko, ez da immobilismora jotzen (ez da “kaosaren tranpa” horretan erortzen); helburua lortzeak ez du esan nahi barneko hazkunde-erritmoa moteldu behar denik, eta kultura berritzaileak eta malguak ihes egiten die egitura erraldoiei eta burokraziari.

Konpainia horretan Sheryl Sandberg-i gertatutakoa aipatzen da adibide gisa; emakume hori, 37 urterekin, publizitate-arloko arduraduna zen, eta zenbait milioi dolar galarazi zizkion Google enpresari, akats bat egin zuelako (okerreko erabakia hartu eta arinegi jarri zuen martxan, beharrezko diren kontrolak pasatu gabe, eta diru gehiegi gastatuta). Larry Page-ri jakinarazi zion hondamendiaren berri, Page zelako enpresaren sortzaileetako bat eta aitzindari intelektuala. Page-k berehala barkatu zion hanka-sartzea, honela esanda: “Pozten naiz, bada, akats hori egin duzulako. Begira, nik, arin-arin mugituta asko-asko egiten duen erakunde nahi dut; eta ez dut nahi, ordea, zuhur-zuhur jokotuta gutxi-gutxi egiten duen erakunderik. Horrelako akatsik egin ezean, horrek esan nahi luke ez dugula behar besteko arriskurik hartzen”.

Horrela funtzionatzen dute, bada, XXI. mendean punta-punta-koak diren erakundeetan. Nork agintzen du Googlen? Bada, baten ordez, hiru dira agintari: lehen aipatu dugun Larry Page, xehetasunez obsesionatuta dagoen pentsalaria; Sergey Brin, aurrekoaren kide, Page baino intuitiboagoa, harekin batera, enpresaren sortzaileetako bat eta gaur egun teknologia-arloko arduradun nagusia dena (publizitateaz arduratzen da, alegia, Googlen dirua batzen duen atalez); eta, azkenik, Eric Schmidt (51 urte), kontseilari-ordezkarria; 2001eko apirilean fitxatu zuten, Page-ren eta Brin-en arteko zubi-lanak egiteko. Schmidt-ek lanaren ardatz ditu inbertsio-egileekin dituzten harremanak, komunikabideak eta enpresaren eguneroko jardunak (horrez gainera, Eric Schmidt kontseilari ere bada Apple-n, alegia, Silicon Valley-ko beste konpainia eredugarrian).

Ingurune kaotikoetan, “berrikuntza” hitza, berba ederra baino askoz ere gehiago da. Bete beharreko agindua da. Googlek, horrexegatik “eskatzan” die bere ingeniariak ideia berrietan pentsatzen eman dezaten denbora; gutxienez, bost ordutik bat eman behar dute horretan. Lehengai hori ezinbestekoa da, eta, horrelakorik ezean, ezinezkoa da konponbide berriak eta negozio berriak proposatzea. Googlen pentsatzen dutenez, “anbiguotasuna eta kaosa neurri batean onartu gabe, ezinezkoa da ezer berri-zea”. Oraingoz, behintzat, eurei ondo doakie: gutxi gorabehera, 2004ko abuztuan akzio bakoitzak 85\$ balio zuen; 2006an, berriz, 475\$ baino gehiago balio du. *Fortune*-k, bukatzeko, hauxe dio: “Itxura guztien arabera, gainera, ez dirudi gero ere hazteko arazorik izango duenik”. Gutariko gehienok informazioa nola eskuratzen dugun, dakigunetik ez dakigunera nola igarotzen garen, ikasitakoa nola hausnartzen dugun, ingurukoekin nola komunikatzen garen... Hori guztia sustatzen eta bultzatzen du Googlek, eta, jakina, ez berak bakarrik, talentua, tolerantzia eta teknologia batzen dituzten antzeko beste konpainia batzuek ere bai. Brewster Kahle, Interneteko Artxiboaren sortzailea mintzatu zenez, “Alexandriako liburutegia izan zen giza jakituria osoa leku berean eta une berean batzeko gizateriak egindako lehendabiziko saioa. Zein izan da azken saioa? Google”.

Erakunde publiko nahiz pribatuei, erakunde txiki eta handiei, oso ondo etorriko litzaieke kaosaren teorian sakonduko balute, kaosaren teoria hori bizitza bera bezain erreala baita, zalantzarik gabe. Arriskuan ibili, akatsak egin behar direla onartu, eta akatsetatik ikasi, esperimenduak egin, ausarta izan... horrela jokatu behar dute funtsean pertsonak, lan-taldeek eta proiektuek. Zalantza-izpirik ez badago, bizitza-zantzurik ez dago. Egia da giza garuna segurtasuna irudikatzeko prestatua dagoela, eta, hala berean, egia da betiko enpresak mikrokudeaketa, kontrola eta ordena izan ohi dituela oinarri, baina, hori horrela izanda ere, bizirik dauden sistemak (eta erakundeak sistema biziak dira, dudarik gabe) barrutik kanpora hazten dira, ez dute hari bati jarraituz jokatzeko, eta aurretik ezin da jakin nola baliatuko dituzten beren aukerak. Kaos horretaz behar bezala gozatzen jakitea funtsezkoa izango da geure burua osasuntsu izan dezagun eta gure erakundeek bizirik jarrai dezaten.


**Juan Carlos Cubeiro**  
Eurotalent-eko zuzendaria



**El aprendizaje autónomo de lenguas en tandem**

Ojanguren, Ana; Blanco, Margarita  
(Koordinatzaileak)  
Universidad de Oviedo  
Oviedo, 2006  
260 or.

Zer da hizkuntzak bikoteka ikastea? Ama hizkuntza ezberdina duten bi lagun maiztasun jakin baten arabera biltzea batak bestearen mintzaira ikasteko: tarte batean kide baten berbetan jarduteko, beste tarte batean bestearenean hitz egiteko, aurrez aurre, telefonoaren bidez edo Internet sarea erabiliz. Elkarrekikotasun printzipioaren arabera, denbora tarte berbera eskaini behar zaie bi hizkuntzei, eta bi lagunek ahalegindu behar dute bestearen irakaskuntza prozesuan. Ikasle bakoitza bere ikaskuntza prozesuaz arduratzen da, berak erabakitzen baitu zeintzuk diren helburuak eta metodoak. Ikasbide hau Europako Batzordeak sustatzen du *Telematics for Autonomous and Intercultural Tandem Learning* izeneko ODL proiektuaren (*Open and Distance Learning*) bidez. Egitasmo honetan Europako 12 unibertsitatek hartu dute parte. Liburuan ODLeK 1996 eta 1999ren bitartean izandako emaitza nagusiak biltzen dira, aditu askoren esperientziak eta iritziak emanez; beraz, unibertsitatean zein handik kanpo bikoteka ikasteko metodo hau sakon eta zabal aztertzen da. Liburua mintzairak ikasteko modu hau bultzatu nahi duten hizkuntza irakasleei begira prestatu da.



**Hizkuntza jarrerak lantzen. Treballar Actituds Lingüístiques (Ulibarri programa)**

Joan i Mari, Bernart  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila  
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
74 or.


Hizkuntzaren aldeko edo aurkako jarrerak ezinbestez baldintzatzen ditu bai ikaste prozesua bai hizkuntza portaera; hau da, norberaren jarrerak hizkuntza gaitasunari eta erabilerari eragiten die. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara Zerbitzuak, gai honekin kezkatuta, aspaldi jarri zuen abian *Ulibarri* programa, ikastetxeetako hizkuntza normalizazioa bultzatzeko. Programa horretan lantzen direnak aberasteko asmoz, egokitzen jo dute egile honen lana itzuli eta argitara ematea: bertan, egilearen hainbat lan daude jasota (hitzaldiak, txostenak...) denak hizkuntza jarrerak lantzearen ingurukoak. Eivissako kasua oinarri hartuta, jokabide horiek (hau da, gaitasuna eta erabilera) lantzeko moduak azaltzen dizkigu egileak, alde teorikoa eta praktikoa uztartuz.



**Euskara-Alemana /Deutsch-Baskisch hiztegia**

Martínez, Elena  
Elkar  
Donostia, 2006  
332 or.

Aurreko irailaz geroztik kalean dugu, Elkarrek argitaratuta, *Euskara-Alemana / Deutsch-Baskisch* hiztegia. Baliabide berri honek 32.000 sarrera baino gehiago eskaintzen ditu, eta lexiko arrunta biltzeaz gain, lexiko teknikoa ere jasotzen du; gainera, gramatika kategoriak, adibideak eta esapide argigarriak ditu, bai eta alemanezko nahiz euskarazko gramatika eranskinak ere.




**El funcionamiento de la Unión Europea Guía del ciudadano sobre las instituciones de la UE**

Comunidades Europeas 2006  
Luxemburgo: Oficina de Publicaciones Oficiales de las Comunidades Europeas, 2006  
50 or.

Europar Batasunaren nondik norakoak ezagutzeko modu erraz eta azkarra eskaintzen digu argitalpen honek: zer den, zein erakunde osatzen duten, bakoitza zertarako den, erabakiak non eta nola hartzen diren... Hau da, Europar Batasunari hurbiltzeko oinarriko eta ezinbesteko informazioa.

Dokumentua on-line: <http://ec.europa.eu/publications>



**Senez. Itzulpen aldizkaria, 30. zenb.**

EIZIE  
Donostia, 2006  
185 or.

*Senez* aldizkariaren ale honetan, itzulpengintzaren garrantziaz eta premiaz ohartarazteaz gain, langintza honetan erosoago aritzeko eskura ditugun teknologien berri ematen digute adituek. Horren harira, itzulpen aldizkari ezagunak aukera ezin hobea eskaintzen du itzulpengintza eta interpretazio ikasketek Euskal Herriko Unibertsitatean izandako ibilbidearen eta Euskal Itzulpengintzaren Erreferentzia Zentroaren nondik norakoak jakitun egon gaitzen.

# Césare Borgia eta Euskal Herria



**P**ertsonaia literarioa da Césare Borgia, inor bada. XV eta XVI. mendeen bueltan bizi izan eta famatu zen printze italiarra hainbat libururen gai izan da eta, azkenaldian, zenbait filmena ere bai. Aski ezagunak egin zaizkigu, ondorenez, Italian, Elizaren itzalean aberastu, famatu eta, azkenik, galdutako familia valentziar honen istorioak. Gutxiago ezagunak dira, ordea, borgiatarrek eta Césare gudagizonak, bereziki, Euskal Herriarekin izan zituzten harremanak.

Gogora ekarri ditzagun aurrekaririk behinenak. Borjatarrek Valentziako Erreinuko familia leinargi, noble, bat genuen XV. mendean. Guduan eta Gortean, Elizan eta politikan belaunaldiz belaunaldi boterea, ondarea eta ohorea pilatzen etengabe tematuak.

Valentziako Erreina, jakina denez, Aragoiko koroari zegoen atxikita, eta XIII, XIV eta XV. mendeetan Europako potentzietariko bat genuen Aragoi: Valentzia eta Mallorca bereganatu ondoren, Sizilia, Napoli, Sardinia eta, azkenik, Greziako hainbat eskualde ere beren koroaren mende jarri zituzten Aragoiko errege-erreginek, Bartzelonako jauregitik gobernatzen zituztela (gaur egun “Palau Reial” izenez eza gutzen dena).

Borjatarrek erreinu horretako noblezia osatzen zuten, eta, beste askoren artean, Alfontso II.a erregearen idazkari eta kontseilari bikain izan zen Alonso Borja kantziler eta diplomatikoa. Haren laguntza eta sostengua eskertzeko, erregeak Valentziako artzapezpikutzeta eta kardinaltza lortu zion eta, 1455ean aita santu hautatu zuten, Kalisto III. izenez.

Kalisto III. honek, bere laburrean, aita santu onaren fama hartu zuen eta, bestalde, senitartekoak, ahaideak eta hurrekoak erruz eraman omen zituen Erromara eta Elizaren karguetara. Nepotismoa deritza jokabide horri eta Eliza katolikoan mendeetako erroak ditu.

Kalisto III.aren iloba bat, *nepos* latinez, Rodrigo Borja dugu. Abizena italiartu ondoren, Borgia. Apezpiku, kardinal eta, hondarrean, 1492an, aita santu izan zen Rodrigo hau:

Alexandro VI.a, hain zuzen, eta gure Césare Borgiaren aita. Alexandro VI.aren bizialdia eta aitasantutza eskandalagarriak hizpide ugari eman du. Hainbat seme-alaba izan zituen, besteak beste Juan, Césare, Lucrezia eta Joffré, eta Errenazimentuko Italia gatazkatsuan politikari eta diplomazia gizon trebea eta sotila izan zen.

Césare 1576an jaio zen Erroman eta printze baten haurtzaroa eta gaztaroa izan zituen. Elizgizonetarako prestatu nahi izan zuen aitak, Juan anaia zaharrena armetarako bezala. Zenbait eliza-kargu ordaindu eman zion: Iruñeko apezpikutzeta, 1491n, Valentziako artzapezpikutzeta eta baita kardinaltza ere. Baina horretarako joerarik izan ez, eta gudua, liskarra eta borroka zituen gogoko eta, ondorioz, aitak Elizaren Armadaren buruzagi izendatu zuen Juan anaiaren heriotzaren ondoren, eta Italia ipar-ekialdean bere aginteari aurre egiten zioten jauntxo errebolatuen aurka bidali zuen. Han, Riminin, Forlin, Faenzan, Pesaron nahiz Urbinon irabazi zituen Césarek armen loria eta agintearen ohorea. Frantsesen eta espainiarren artean, Firentzeko nahiz Milanoko agintariekin negoziatzen eta ituntzen, gaur batekin eta bihar bestearekin, Elizaren lurralde guztiak bildu eta Italia osoa bateratzeko gai izango zela zirudien. Garaile, Romagnako duke izendatu zuen aita santuak 1501ean.

Artean Frantziako Gortera egindako bidaia batean, Albreteko Karlota printzesarekin ezkondu zen. Karlota Nafarroako errege Joan Albretekoaren arreba zen, eta, ezkontza horren bidez, borgiatarrek Frantziako erregearekiko lotura egin nahi zuten, Napoliko aragoiarrekin edota Milanoko sfortzatarrekin zutena bezalakoxea. Ez zekien asko Césarek urte gutxiren buruan Frantziak Gaztelarekin bat egingo zuela orduan bere aliatu zen Nafarroako erregea saltzeko, eta borroka horietan hilko zela Césare bera ere!

Césare Borgiak Errenazimentuko printzearen figura egiten zuen 1500aren inguruan. Firentze hiriaren enbaxadore zen Nicolás Machiavellik Césare hartu omen zuen eredu bere “Il Principe” liburu ospetsua idazteko, teoria politiko modernoaren lehen liburua.





Hain aliantza mugikor eta aldakorren garaian, ordea, ezin luza-  
ro iraungo zuten Césareren adiskidetasunek: 1503an aita santua  
hil ondoren, borgiatarren etsai bat hautatu zuten kardinalak:  
Giulio della Róvere, Julio II.a.

Aita santu berriak salduta, Aragoiko errege Fernandoren agin-  
duz preso hartu zuten Césare 1503an. Galera baten sartu eta  
Espainiara bidali zuen Gonzalo Fernandez de Córdoba, *Kapi-  
tain Handiak*, gudalburu gaztelauak. Zenbait lekutan preso  
eduki ondoren, Medina del Campoko gazteluan atxilotu zuten.

Artean, Isabel erreginaren heriotzak piztutako gatazka areago-  
tu egin zen Gaztelan Fernando *Katolikoa* alargunaren eta Joana  
*Zorua* alabaren senar Felipe *Ederraren* artean, koroa nork bere-  
ganatu, Fernando, berez, Aragoiko errege baitzen, ez Gaztela-  
ko. Bien bitartean, Italiako borgiatarrek eta Nafarroako  
erregeak egiuneak egiten ziharduten Césareren askatasuna lor-  
tzearren.

Horrela, bada, 1506ko urriaren 25ean, nafarren eta noble gaz-  
telau zenbaiten laguntzaz, Medinako *Motako* dorretik soka  
baten laguntzaz ihes egin eta, zaurituta, Iruñera abiatu zen  
Césare, Valladolid, Reinosa, Castro, Bilbo, Durango eta Berga-  
ran barrena.

Iruñean, harrera beroa egin zion Joan erregeak, hain gudagi-  
zon ospetsuaren laguntza baliotsua izan baitzitzaiokeen Nafa-  
rroari Gaztelaren erasoaren aurka. Nafarroako armadako  
kapitain nagusi izendatu zuen Joaneke Césare eta berehala ekin  
zion honek nafar gudarostea prestatzeari eta nafar noble traido-  
reak menperatzeari. Horietako behinena Leringo kondea  
zen, Luis Beaumont, erreinuko handiki gaztelazalea, Lauaxe-  
tak bere *Amaiur* poeman “erri bako zaldun dongia” izendatu  
zuen.

Leringo kondea Nafarroako bi alderdietako baten buru zen,  
*beaumontarrena* hain zuzen. Mende luzea zeraman Nafarroa-  
ko erresumak hiru erreinu indartsuren erasoan eta, barnean,  
bi alderdiren zatiketa pairatzen. Errege-erreginak Xanpaina,  
Foix eta Albret leinuetakoak ziren, gaskoiak, beraz, eta Fran-  
tziako errege-erreginen menpeko Frantzian zituzten feudoen  
ondorioz. Izan ere, erreinuko noblezia gorenean kokatuta zeu-

den eta Frantziako politikan hartzen zuten parte, Ehun Urteko  
Gerraren azkenaldi hartan.

Baziren gero *agramondarrak* deitutakoak, Aragoiren aldekoak  
eta, ondorioz, Fernandoren aitaren, Aragoiko Joan II.aren, sos-  
tengatzaile izan zirenak honek Nafarroako koroa eskubiderik  
gabe gorde zuenean bere seme Karlosi, *Vianako Printzeari*,  
eman gabe.

Beaumontarrek, aldiz, Vianako Printzea sostengatu zuten eta,  
handik aurrera, aragoiarren aurkako eta Gaztelako erreinuaren  
aldeko izan ziren. Azpizokoa, saldukeria eta traizioa erabili  
zituzten Nafarroako errege-erreginen aurka, eta XV. mendean  
hondarrean erresuma bat osatzen zuten erresumaren barruan.

Vianako hiria zen Leringoaren gotorleku garrantzitsuetariko  
bat: Logroñotik gertu, berau zen erreinuko atea. Hara abiatu zen  
Césare 1507ko hasieran, bertako gotorlekua eskuratu eta Nafa-  
rroaren askatasuna bermatzera. Gotorlekuan hesituta zirenek  
inguruetan egin ohi zuten lapurreta, jatenik lortuko bazuten.


Horrela, 1507ko martxoaren 12an, zenbait zaldunekin Viana  
inguruko zaintzak begizatzen ari zela, Vianako gotorlekutik  
ateratako taldetxo batekin enkontrua izan zuen Césarek. Haiei  
eraso eta zaldiketan lagunak atzean geldituta, halako batean,  
bakarrik aurkitu zuen Césarek bere burua soldadu etsaien ar-  
tean. Haiek eraso eta hil egin zuten, nor zen jabetu gabe, ziur  
aski, baina soinean zeraman armadura aberatsaren distirak era-  
karrita. Lurrean luze geratu zen, horretaz, Vianako gazteluaren  
ikusmiran, bakarrik eta armadurarik gabe, hainbeste mila gizo-  
nen buruzagi eta printze boteretsu izandako Césare Borgia,  
Nafarroako kapitain nagusia.

Bere gizonek aurkitu zutenean, Vianara eraman eta Santa Maria  
elizan ehortzi zuten. Ez ziren, baina, hor bukatu Césareren pau-  
suak. Gaztelauak Nafarroako erreinua 1512an menderatu ondo-  
ren, Kalagorriko apezpikuak gorputza hilobi dotoretik atera eta  
elizaren atalasean ehortzarazi zuen, elizan sartzen zirenek hila-  
bia zapaldu zezaten. Horra gaztelauen mendekua!

**Eneko Oregi**

**Itzultzaile Zerbitzu Ofizialeko burua**

# Hitz gurutzatuak



## EZKER-ESKUIN

1. Afrika mendebaldeko estatua.
2. Bizkaieraz, duk. Nafarroako urtegia.
3. Ibar, bailara. Hiru adierazteko aurrizkia.
4. Ez eme. Konposizio instrumental.
5. Nitrogenoaren ikurra. Aurpegiko ile. Bokala.
6. Tenorez. Interjekzioa.
7. Burdinola. Hegazti mota.
8. Nafarroako ibaia. Zangoaren atal.
9. Iparraldean, distira.

## GOITIK BEHERA

1. Leku hartako.
2. Errepikatuz, ikara. Bihi, garau.
3. Ez du entzuten. Portugalgo hiria.
4. Aditua, jakintsua. Argonaren ikurra.
5. Kontsonantea. Ideia, ezagutza. Kontsonantea.
6. Bokal errepikatua. Herria, aberria.
7. Asto ar. Berrogeita hamabi, zenbaki erromatarren arabera.
8. Ardi, hitz elkarketan. Interjekzioa.
9. Trebea.

# Letra zopa



Aurki itzazu letra zopa honetan Europa erdialdeko 8 herrialderen izenak. Izenok ezker-eskuin, goitik behera eta diagonalean azalduko zaizkizu.

## Euskararen inguruko zenbait telefono

- AEK: 944 159 512
- Argia: 943 371 545
- Berria: 943 304 030
- EIZIE: 943 277 111
- Euskal Herrian Euskaraz: 943 445 665
- Euskal Irrati Telebista (EITB): 946 031 000
- Euskal Kulturaren Erakundea: 00-335-59 93 25 25
- Euskaltzaindia: 944 158 155
- HABE: 943 022 600
- Zubiarte Euskaltegia: 948 361 091
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP): 945 017 600
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza: 945 018 110
- Ikas eta Ari (IKA): 945 288 922-944
- IRALE: 945 274 400
- Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (IZO): 945 017 656. FAX: 945 017 603
- Kultura Saila: 945 019 464
- NAPIko Euskaltegia: 848 423 319-351
- NAPIko Euskara eta Hizkuntz Komunitarioak Zerbitzua: 848 423 349-351
- Udal Euskaltegiak: 944 406 217 943 028 100
- UZEI: 943 473 377

## Soluzioak

**Ezker-eskuin:**  
 1. Ginea. 2. Dok. Esa. 3. Haram. Tri. 4. Ar. Sonata.  
 5. N. Bizar. 1. 6. Garatiz. Bol. 7. Ola. Oñoa. 8. Ega. Oin.  
 9. Arral.

**Goitik behera:**  
 1. Hango. 2. Dar. Ale. 3. Gor. Braga. 4. Ikasia. Ar. 5. N. Nozio. R. 6. Ec. Nazioa. 7. Aslar. LII. 8. Art. Bon. 9. Iatua.

**Letra zopa**  
 Frantzia, Belgika, Alemania, Austria, Suitza, Herbehereak, Kroazia, Eslovenia.

**Hitz gurutzatuak**